

1919tik | 2.594 zenbakia | 2018/04/15 | 3,90 € | argia.eus



ARGIA

KALE-SALTZAILE
BILBOTARRAK

***Jomugan
baina antolatuta***



"ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES"

kamisetak ARGIAAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

ESKAERAK

www.argia.eus/azoka | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 "Negozioen sekretuak" babesteko aitzakiaz, alerta jotzaileak mututu

IRITZIAK

- 17 June Fernandez
- 18 Enrike Diez de Ultzurrun
- 19 Andoni Mujika
Itxaro Borda



Inpunitateaz, abestien indarraz, etengabeko matxinadez eta Kataluniako egoeraz mintzatu gara Lluís Llachekin. DANI BLANCO

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIAKO AZOKA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
REDA ZINE
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Lluís Llach: "Espainiako Estatuak bi beso armatu ditu: juridikoa eta komunikatiboa" / Reyes Ilintxeta
- 20 | EITBko eztabaida saioetan emakumezkoak jokozen kanpo / Miren Osa Galdona
- 25 | "AEBek Sri Lankako bake prozesua zapuztu eta tamilen suntsiketa gogoz bultzatu zuten" / Jabi Zabala
- 28 | Mbolo Moye Doole: Kale saltzaileak diskriminazioaren aurka / Mikel Garcia Idiakez
- 32 | *Enigma bizia* bisita gidatuak Zumaian / Onintza Irureta Azkune
- 34 | "Imajinario kolektibo andaluzetik oso bestelako kooperatibagintza sortzen ari gara" / Urko Apaolaza Avila
- 42 | Itziar Okariz: "Ulermena etengabeko diskriminazio prozesua da" / Nere Lujanbio
- 46 | *Wild Wild Country* telesail-dokumentala: "Fikzioa balitz, ez nuke sinetsiko" / Gaizka Izagirre

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOKI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Elizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Elizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Maddi Txintxurreta, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERTAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus



PANORAMA

Elkartasuna gailendu zaio zigorrari

Bere burua progresista gisa saltzen duen Macronen Gobernuak Frantziara bizimodu hobe baten bila doazen pertsonen aurkako legea gogortu nahi du. Migratzaileen atxilotze epeak luzatu eta asilo eskaerak aztertzeko tarteak murriztu nahi ditu, besteak beste. European, ezker eskuin, orokortzen ari den gaitza. Horretarako sortu zituzten atxikitze zentroak. Teorian, asilo eskaerak aztertu bitartean pertsonak jasotzeko zentro publikoak dira. Baina egun, praktikan, kartzelak dira. Hendaian ezkutuko espetxe horietako baten irekiera eragotzi dute lagun ugarik Bizi! Mugimenduaren eskutik. Irudian: Bizi!ko hainbat kide José Bové europarlamentariarekin batera, Frantziako Poliziak zentroan ezarritako lerroaren aurrean.

Argazkia: Gari Garaialde (Bostok Photo) · Testua: Axier Lopez



- %7** baino ez dira emakumeen izenak Donostiako kale-izendegian. Hiriko 877 kale eta plazetatik, 282k gizonen izenak dituzte, eta 63k emakumeenak
- 1,6** milioi kilometro koadrokoa da Ozeano Barean noraezean dabilen zabor pilaketa (Iberiar Penintsula halako hiru). Tartean, 80.000 tona plastiko inguru
- 3** pertsona hil dira hilabete bakarrean (martxoan) Andaluziako Puerto III espetxean, tartean Xabier Rey preso iruindarra. Ikerketa eskatu dute
- 36** greba eguni hasiera arrakastatsua eman diete SNCF Frantziako trenbide konpainia publikoko langileek, Gobernuak egin nahi dituen erreformen aurka. Bost egunetik bitan egingo dituzte lanuzteak
- %78** AHT eta Esako urteigira bideratuko du Espainiako Estatuak, Nafarroan gastatuko duenetik



Turismoaren goi bilera Donostian eta greba Gipuzkoako hoteletan

Lander Arbelaitz Mitxelena
@larbelaitz

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek Gipuzkoako hoteletako langileen greba deitu dute maiatzaren 23, 24 eta 25erako. Sindikatuek ez dituzte egunak kasualitatez aukeratu: data horietan, Turismoaren Munduko Erakundeak 35 herrialdetako 300 agintari eta ordezkari bilduko ditu Donostian. "Patronalak hitzarmen kolektiboarekin lotuta egin dituen proposamenak ez dira nahikoak" salatu dute sindikatuek, eta ELAren esanetan, blokeo egoeran dago Gipuzkoako Ostatuaren Hitzarmen Kolektiboaren negoziazioa; horregatik deitu dute greba.

Espainiako Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko ministro Álvaro Nadal, eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Komertzio eta Kontsumo kontseilari Alfredo Retortillok

aurkeztu zuten Turismoaren Nazioarteko Goi Bileran. Nadalek azpimarratu zuen turismoaren esparruko "gertakari handienetako bat" dela eta "Euskadik eta Donostiak orain arte izan ez duten nazioarte mailako bisita txartel" gisa funtzionatuko duela.

BiziLagunEkin plataforma sortu dute

Bestalde, azken hilabeteetan lanean aritu ostean, BiziLagunEkin plataforma sortu dute Donostian. "Hirian indarrean dagoen turismo ereduak kezkatzen gaitu, ideologia eta jardura desberdinetan aritzen den jendearen bilgunea gara, partekatzen duguna egungo turismo ereduak herritarren bizimoduan sortzen dituen ondorioekiko kezka da". Turismoaren Goi Bilerak iraun bitartean, ekintza ugari antolatu dituzte eta azken egunean manifestazioa antolatu dute, "Bertan bizi gara, bertan bizi nahi dugu!" lelopean.

"Gure haurrak bigarren zonako herritarrak ote dira?"

PAXKAL INDO, SEASKAKO PRESIDENTEA

230 ikasle gehiago izango dituzte Seaskako ikastolek datorren irailetik aurrera, baina irakasle gehiago izatea ukatu die Frantziako Hezkuntza Ministerioak eta mobilizazioak iragarri dituzte Gobernuaren erabakia gaitzesteko. "Nola erantzun ikastolek bizi duten hazkunde horri zero postu gehiagorekin? Egoera jasanezin horren aurrean, ikastolak alerta gorrian ipini dira", dio Indok. Garbi du: "Hitzarmen bat baino gehiago, Akademia ikuskari propioa behar dugu, euskal hezkuntzaren beharrei erantzuteko". **2018-04-02**



FAUNA PUBLIKOA

***“Euskal gizartearen
gehiengoari oso gutxi
inporta izan zitzaigun
[ETAren] armagabetzea”***

**Jose Antonio Pastor,
PSE-EEko kidea (Europa Press)**

Titular triste bat lortzeko



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Garai aldakorrak bizi ditugu, garai likidoak, garai post-modernoak, Don Inorrezek argitaratu berri duen diskoan kantatzen duen moduan. Egun, inork ez dizu kargu hartzen gaur A esaten baduzu, bihar K eta etzi Z. Kontortsionista politikoak dira blablabla mediatikoan errege, jende malguta, flex sentitzen dena, jarreraz aldatzen dakiena panazko txaketaz bezain arin.

Aspaldi espikatu zuen Jesus Egigurenek txiklezko politika honen fundamentua. “Flexiguren” izeneko bideo batean ikus dezakezue Youtuben –droga ona da–: “Gu alderdi flexiblea gara: guk esan dezakegu hori hor eta, aurrerago, beste zerbait esan. (...) Gu ibili gara NATOren aldeko propaganda egiten Kontxan esku-orriak banatuz; eta handik hiru hilabetera, NATOren kontrako esku-orriak”.

Jose Antonio Pastor barrez lehertzen zen Egigurenen ondoan 2009ko EAEko Legebiltzarreko saio hartan. Txisteak grazia egin behar dio oraindik ere, zeren, asteburu honetan, ETA desarmatu zenetik urtea bete denean, goiko adierazpena eskaini digu, “niri bost” esanez bezala. Iaz, hilabete honetan bertan, esan zuen desarmatzea “aukera berri bat zela” biktimei kalte-ordaina emateko. Kontraesana? Ez, lagunok: malgutasuna, aldeko eta kontrako esku-orriak, atzo goizean esandakoaren gainean beste palakada bat adierazpen bota beharrak exijitzen duen gerri-jokoa.

Txomin zenari Ximon deitzeko ariketa honek badu, nolahi, alderdi ez hain graziosorik. Azken finean, ziklo odoltsu baten bukaeraz ari gara eta, edozein aldetatik begiratu ere, ez dirudi egokia Pastorrek hainbeste sufrimenduren amaieraren gainean pixa egitea, zertarako eta titular triste bat lortzeko. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



ANALISIA



Zer gertatzen da Errazkin eta Intxaurrandietaren epaiketarekin?



Lander Arbelaiz Mitxelena

@larbelaiz

ARGAZKIA: GORKA RUBIO / FOKU

Ostegunean epaituko dituzte Madrilgo Kontu Epaitegian 2013an Gipuzkoako erraustegi gaindimentsionatua geratu zuten Iñaki Errazkin eta Ainhoa Intxaurrandieta. Lehena Ingurumen diputatua zen eta bigarrena Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko burua, biak EH Bilduko kideak. Egun, GHKn gehiengoaren EAJ eta PSEk erabaki dute herritarren protesten gainetik, erraustegi polemikoarekin aurrera jarraitzea, eta gainera, bi pertsona hauei 40 milioi euro eskatuz erakundeetatik eraldaketa sustatu nahi duen edonori mezu beldurgarria bidaltzea: kontuz ibili, gure negozio erraldoiak ukituz gero zuen bila joango gara.

Apirilaren 7an, "Ainhoa eta Iñaki, zuekin gaude; alternatiba badago" lelopean ehunka herritar euri zaparradapean manifestatu ziren. "Ez da soilik ingurumena eta osasun fisikoa jokoan dagoena, osasun demokratikoa ere jokoan dago, eta herritarrek aukeratutako proiektu politikoak gauzatu daitezkeen ala ez", adierazi zuen Errazkinek amaierako hitzartzean. Bertan zeuden aurreko legegintzaldiko EH Bilduko kargudun ugari, baita gaur egun ardura dituzten batzuk ere. Baina zer pentsatua ematen du beste asko ez joan izanak.

Garbi hitz egitea komeni da: auziaren dimentsio politikoa erraldoia izan arren –dimentsio pertsonala aipatu gabe, 40 milioi euro ezin baititu inork ordaindu–, kanpora begira ezker independentistaren egitura politikoetatik eman den erantzuna oso uzkurra izaten ari da, beste hainbat gairekin konparatuz gero. EH Bilduren kide gisa elite ekonomikoekin talka zuzena kudeatzea egokitu zitzaizen bi pertsonaren aurkako epaiketarekin heltzear dela, kanpora begira bi prentsaurreko eta elkarretaratze dei batekin erantzun du koalizio abertzaleak. Bere oinarri sozialaren parte handienak ez daki zer gertatzen ari den, gertuko hedabide handienek ere ez baitute hilabeteotan gaiaz informatu.

Gipuzkoa Zutiketik antolatu (behar izan) ditu *Angula Ustelak* hitzaldiak Euskal Herri osoan. Ainhoa Intxaurrandieta eta Igor Meltxor kazetariak erraustegia- ren bueltan dagoen ustelkeria azaltzen diete aho bete hortz geratzen diren herritarrei: langile publikoek idatzitako enpresa pribatuaren txostenak, aktak zituen ordenagailuaren lapurreta, FCCri diru publikoarekin oparitu izan zaizkion kamioiak, EAJko Carlos Ormazabalak nola sinatu zituen *swap* maileguak herritarren interesen aurka...

Bakoitzak jakingo du nola kokatzen den pastel ustel honen aurrean.

EKONOMIAREN TALAIAN

Defentsak %10,7; pentsioek %0,25



Juan Mari Arregi

Gobernu batek aurkezten dituen Aurrekontu Orokorrek bere balio sistemaren eta ideologiaren ispilu izan ohi dira. Espainiako Estatuaren kasuan –Hego euskal herritarrei ere eragiten die–, oso ongi islatzen du balioen sistema hori: kapitalaren eta AEBak bezalako potentzia handien zerbitzura dagoen gobernu neoliberalak da, NATO erakunde militarri gero eta ekarpen handiagoa egiten diona.

Aurrez aurre jartzen baditugu gastu militarrentzako igoerak eta pentsioenak, dena esanda dago. Defentsaren aurrekontua gehien haziko den bigarrena da eta 8.453 milioi euro dakartza, hau da, 819 milioi gehiago –%10,7 igoko da aurten–. Aldiz, pentsioek %0,25eko igoera hutsala baizik ez dute izango. Mobilizazioen ondoren, gutxieneko pentsioak apur bat igoko dira... eta segituko dute hutsalak izaten. Eskandalua larriagoa da, aurrekontuen egileek, Rajoy eta bere ministroek hala nola diputatu eta senatariak, soldata %1,5 igoko baitute.

Euren balioak agerian geratzen dira ere, haurren pobrezia-aren kontrako partidarekin: agindutako 1.500 milioi euroak murriztu dituzte 346 milioira. Gauza bera gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko %0,5eko igoera ziztrina ikusita: 19,74 milioi euro besterik ez ziren 2017an eta 19,84 milioi izango dira 2018an. Errege Etxearen aurrekontua %0,9 igoko da –ia zortzi milioi euro–, Estatu-ko Kontseiluarena %4,9... Eta Auzitegi Goreneko eta Konstituzio Auzitegi-ko presidentek jasoko dituzte Estatu-ko soldata handienak: lehenak 134.760 euro urtean, bigarrenak 149.007 euro. Estatuak badaki ongi pagatzen bere politiken inguruan erabaki behar dutenei. Logikoa da miserebleki hartu izan diren pentsionistek kalean oihukatzea: "Ez da dirua falta, lapurrak daude soberan!"



ECUADOR ETXEA

“Zurekin jolastu nahi dugu”

BILBO. Ume batek Prim kaleko parke batean jasandako eraso arrazistaren bideoa zabaldu dute sare sozialetan: zenbait umek ez zioten utzi haur beltz bati parkeko txirristan igotzen; haren ama gerturatu zen, haurrari pasatzen utz ziezaioten, baina beste umek ez zioten utzi eta gainera iletik tira eta jo egin zioten haur beltzari. Gertaera tamalgarri horri aurre egiteko, “Zurekin jolastu nahi dugu” eta “STOP arrazakeria” mezuak jarri dituzte Santutxu auzoan dagoen parkean.

Desarmea, desmobilizazioa eta bergizarteratzea hizpide

Maddi Txintxurreta

@mtxintxurreta

Urtebete igaro da ETaren armagabetzetik, nazioarteko egiaztatzaileen eta askotariko instituzioen bitartekaritzarekin. Urteurrena ospatu eta bakearen bidean pausoak emateko, jardunaldiak egin ditu Foro Sozial Iraunkorrak.

Oztopoak

Presoen “salbuespen egoera” salatu dute, besteak beste. “Batzuetan, oztopo administratiboak, oztopo politikoak baino zailagoak dira gainditzeko”, adierazi du Jean René Etxegarai Euskal Elkargoko presidentek.

Epaileak gako

Presoen gerturatzeaz gain, zigorren betetzeaz ere aritu dira. Azken urtean, 21 euskal preso libre geratu dira, eta ez da izan zigor egokitza-penik. Epaileei mintzatu behar zaiela esan da, haiek baitute erabakitzen. Egiaren batzordea sortzea proposatu da.

Arbolaren Egia

Koldobika Jauregi zizelkariaren Arbolaren Egia lana inauguratu dute, “belaunaldi berriek iraganaz irakasgaiak atera ditzaten eta geroan aitzakia berriro altxa ez dadin”. Obrarekin ados ez, protestari batzuek “lotsa” hitza osatu dute aterkiekin.

LAN GATAZKA



157

langile kaleratzeko asmoa du Productos Tubulares enpresako zuzendaritzak, arrazoi ekonomikoak argudiatuta.

Langile-batzordeak ordea kudeaketa txarra leporatu dio zuzendaritzari.

%25

murriztu nahi die soldata zuzendaritzak lanean jarraituko luketen gainerako 273 lagunei.



EZ HAIN EREDUGARRI

Kopenhageko Amager Bakke erraustegia (hondakinen lobbyak eredugarritzat erakutsi ohi duena) kiebra jotzeko puntuan dago eta haren sustatzaileek ez dute salbaziorako beste biderik ikusten atzeritik milaka tona zabor inportatzea baino.



ZAD

Frantziako 2.500 jendarme Britainiako ZAD desalojatzeko eta bertako lurak okupatu dituzten herritarrek kanporatzen hasi zen apirilaren 9 goizean. Ehunka lagunek oztopo ugari jarri zizkieten polizia-indarrei.



OSASUNBIDEA

Nafarroako Gobernuak erabaki du gaur egun osasun sistematik kanporatuta dauden pertsonen (paperik gabeko migratzaileei, adibidez) osasun zerbitzuak doan eskaintzea. Izan ere, 2013an Espainiako Konstituzionalak atzera bota zuen hori ahalbidetzen zuen araua.

‘Negozioen sekretuak’ babesteko aitzakiaz, alerta jotzaileak mututu



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Herritarren oharkabean dator lege berria. 2016an Europako Parlamentuak gehiengo handiz onartu ostean, Frantziak bere legedira egokitu du martxoaren 28an eta laster egingen du gauza bera Espainiak. Enpresen sekretuak konkurrentziaren espioitzaren begiradatik babesteko idatzi dutela diote legegileek, baina herritarrak ohartarazten dituzten alerta jotzaileen lana isilaraztea du helburu kazetari eta ekintzaile askoren ustez. Lobbyek isilpean egin dute azioa orain ere.

“Hona erloju-bonba baten historia”, idatzi dute *Libre Actu* hedabide frantse-sean. “Bonbak kondenatuko ditu alerta jotzaileak baldin eta ausartzen badira zabaltzera multinazionalen herritarren interesak mehatxatuz egindako delitu fiskal edo ingurumenezkoak”. Bonba hori da *negozioetako sekretuen* zuzentarra, 2016ko ekainaren 8an Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak onartua.

Martxoaren 28an egokitu du Frantziako Asanbladak zuzentarra Frantzian lege bihurtuz eta Senatuak apirilaren 18rako deitu du gauza bera egiteko boz-keta. Biak ere premiakzko prozeduraz eta kasik eztabaida publikorik gabe pasatu dira, nahiz eta legebiltzarkideen artean hitz gordinik faltatu ez zen.

“Negozioen sekretuen babesa ezingo da erabili alerta jotzaileen eta kazetarien kontra”, esan du Nicole Belloubet Justizia ministroak, segurtatuz –kazetari askok eta horien elkarte zenbaitek salatuaren kontrara– askatasun publikoei legeak ez diela inolako murrizketarik ekarriko.

Aurkakoen artean nabarmendu da François Ruffin diputatu ezkertiarren hitzaldi laburra. Aipatu ditu jendar-me eta epaile frantsesek pertsegitutako alerta jotzaileak, *Luxleaks* afera eta beste hainbeste eskandalo argitara atera dituztenak. Legea bozkatu behar zuten diputatuei esan die: “Bada zerbait gizakiok ariman itsatsita daramaguna: justizia nahia, egia egarria. (...) Geratzen ote zaigu horretatik zerbait, justizia

nahirik, egia egarririk? Zeinen alde zaudete zuek, diputatuok? Nor txalotzen duzue? Multinazionalak diren Goliatak ala horiei aurre zutik eta bakarrik egi-ten dieten jende zuzenak?”. Botoekin erantzun zioten parlamentariak.

Lege berriak babesten ditu edozein enpresaren informazioak “denen eza-gutzara zabalduta ez dauden edo sekto-re berean ari den pertsona batek erraz eskuratu ezin dituenak”, hain zuzen sekretu izate horretan datzalako beren balioa, eta horregatik “informazio ho-rien jabe legitimoak egoki babesten di-tuenak. Legearen defendatzaileek diote enpresak babestu nahi dituela espioitza ekonomikotik, lapurreta industrialetik eta konkurrentzia ez leialetik. Frantzia izan da Europa mailako bultzatzaile na-gusia, argudiatuz AEBek aspalditik dau-katela horrelako lege bat eta Europak maila berean jarri beharra daukala.

Emmanuel Macron ekonomia minis-tro zenean saiatu zen horrelako bat ezartzen Frantzian, baina atzera bota zioten. Orain lehendakaritzaik zorte hobe eduki du, herritarrei azalduz ka-zetari eta ekintzaileek badauzkatela aski tresna legearen barruan geratze-ko. Aldiz, kazetari elkarte nagusiek eta baita hedabide handi batzuek ere sala-tu dute informazio askatasunaren kon-trako eraso. “Negozioen sekretuaren kontzeptua hain zabala izaki, hemendik aurrera kategoria horretan sartu ahal izango dute enpresa baten barneko in-formazio oro (...) eta horrela lortu de-

zakete jendearengana ezin iritsi izatea *Mediator* botikaren edo *Bisfenol Arena* bezalako eskandaluek, *Panamako Pape-rak* edo *LuxLeaks* bezalako aferak”.

Korporazioek omerta ezarri dute legez

Observatoire des Multinationales heda-bidean Olivier Petitjeane erakutsi due-nez, European nagusitu den zuzentarra berria multinazionalen lobbyek presta-tu zuten, zehazkiago 2000. urtean ban-ka eta korporazio industrial handiek bereziki sortu zuten TSIC Negozioen eta Berrikuntzaren Sekretuetarako Koali-zioa izenekoak.

Corporate Europe Observatory GKE ezagunak egindako ikerketak erakutsi zituen tartean zeuden konpainiak (Alstom, Michelin, Nestlé, Dupont, Intel...) eta nola egin zuten lana Europako Batzordearekin eta nazioarteko negozioe-tan berezitutako abokatu kabinete han-diekin prestatzeko azkenean 2016/943 zuzentarran mamituko zen testua. “Bruselako aginte jokoei esker, lortu zu-ten nahi zutena”.

Estrasburgoko legebiltzarrean 2016ko ekainaren 8 hartan presente zeuden 652 eurodiputatutatik 503k eman zioten baiezkua zuzentarra berriari, 131k kon-trakoa eta 18 abstenitu. Legearen kon-trakoen artean, gogorren Berdeak min-tzatu ziren: “Okerreko mezua zabaltzen du legebiltzar honek, zeren eta *Pana-mako Agiriak* haizatuta hamar egunera onartzen baitugu lege bat kazetarien eta alerta jotzaileen lana zailduko duena”.





Reuters agentziak zabalduko argazkian, Antoine Deltour alerta jotzailea agintariak antolatu dizkieten epaiketako batean, Luxenburgon. Deltourrek kazetariei filtratutako PwCren agiriak erakutsi zuten nola multinazionalak eta Luxenburgoko Ogasunak hitzartu zituzten konpainiek ahalik eta zerga gutxien ordaintzeko itunak, haiek beren egoitzak herrialde txikian kokatzearen truke. 'LuxLeaks' eskandaluak agerian utzi du Europako elite politikoarekin elkar hartuta nola lortu duten korporazio handiek beren zergak izugarri murriztea.

Beste eskandalu bat ere bazebilen Estrasburgon bildutako europarlamentarien ahotan: *LuxLeaks* afera argitara atera zuen Antoine Deltour epaitu behar zuten handik bi astetara. Deltour eta beste bi herritar gehiago, tartean bat kazetaria, auziperatu zituzten herritarren begien aurrera ateratzeagatik Luxenburgok multinazionalak eskaintzen dizkien onura fiskal bereziak frogatzen dituzten agiriak.

LuxLeaks aferaz ICIJ Ikerketa Kazetaritzako Nazioarteko Korporazioak zabalduko paperen bidez ezagutu zituzten herritarrek Luxenburgoko Ogasuneko agintarien eta PwC mitikoaren artean –hau zen eta da konpainia handien aholkularia– negoziatutako akordioak.

Geroztik, ikusten denez, lobbyek beren lana borobiltzea erdietsi dute.

2016an Europa mailako zuzentaraua ebatzirik, 2018ko ekaina baino lehen egin behar du herrialde bakoitzak bere legedi barrurako iraulketa. Frantziak ia amaitua du honez gero, teorian kazetarientzako zenbait salbuespen erantsita.

Britainia Handiak ere bereganatu du lege berria. Paradoxikoki, *Brexita* ez da izan oztopo Estrasburgotik datorren arau berria onartzeko, gainera bertsio are eta gogorragoan. Belgikan gobernuak ari da egiten, baina testu zehatza ez du argitara atera. Danimarkan ere hasiak izango dira, kazetari elkarteak mobilizatu daude eta.

Espanian Enpresako Sekretuen Legea deitu diote (*Ley de Secretos Empresariales*) eta Cuatrecasas bufete erraldoiak argitaratu duenez otsailaren 21ean onartu du Mariano Rajoyren gobernuak

aurreproiektua. Cuatrecasaseko abokatuek –nork jakingo du hobeto lobbyak berak baino?– argi daukate nori egingo dion mesede: “*Secretos empresariales, ahora mejor protegidos, gracias al nuevo anteproyecto de Ley*” dio tituluan.

Ruffin kazetari eta diputatu frantse sak alerta jo du: “Nor ausartuko da horrela bere ugazabaren jokabideak salatzera, diren eta ankerrenak izanda ere? Nor arriskatu du ikerketa kazetariei bere lekukotasuna eskaintzera? Etor-kizunean izango ote dugu eskuratzerik kapitalismoaren deriba izugarri berruzko ikerlan zorrotzik?”

Korporazio handiek urrats berri bat egin dute zabaltzea komeni ez zaizkien informazioez *omerta* –mututasunabermatzeko. Baina lasai, hori Europan ari da gertatzen. Zorionez Euskal Herria oasi bat da. Ala? ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Espainiako Estatuak bi beso armatu ditu: juridikoa eta komunikatiboa»

Lluís Llach

Erretiraturua setio-egoeran

Lluís Llach eta Jaume Roures produktorea Iruñera etorri ziren martxoaren bukaeran 76ko martxoaren 3ko Gasteizko gertakari latzak erakusten dituen *La revolta permanent* filma aurkeztera. *Sanfermines 78* Gogoan ekimenak gonbidatuta heldu ziren *Inpunitatearen aurkako irudiak* zinema zikloan parte hartzera. Inpunitateaz, abestien indarraz, etengabeko matxinadez eta Kataluniako egoeraz mintzatu ginen *L'Estaca*-ren sortzailearekin.

Testua: Reyes Ilintxeta

Argazkiak: Dani Blanco

***La revolta permanent* filmeko protagonistak zaitugu.**

Ni aitzakia besterik ez nintzen Gasteizko gertakari makabroei buruzko film bat egiteko. 76ko martxoaren 3ko gau hartan bertan hasi nintzen konposatzen *Campanades a morts*. 2006an, erretiratu baino urtebete lehenago, proposatu zidaten film bat egitea eta gustura aritu nintzen, baina ni ez naiz protagonista, Gasteizko jendea eta biktimen senitatekoak baizik. Lluís Danésekin zuzendu zuen eta Jaume Roures jaun arriskuak ekoiztu. Lan honek balio izan zuen gertatu zena oso modu desberdinean azaltzeko. Ordura arte esandakoa ez zen egia osoa. Boterearen eraginkortasun

eza salatu genuen, baita estatu baten eskarnioa ere. 2006an, 30 urteren ondoren, eta gaur egun ere, Gasteizko hiriri eta biktimei barkamenik eskatu gabe jarraitzen dute estatu krimenez har daitekeen horregatik. Hunkidura handiz bizi genuen hura.

2006an Gasteizen egin genuen errezitala ahaztezina da hor zegoen jende guztiagatik. Martxoak 3 elkarteko ki-deek arratsalde horretan bertan eginiko manifestazioan batzuk jipoitu eta atxilotu zituzten. Ni atera nintzen 30 urte atzeragoko afera batez kantatzera, eta egun horretan bertan gauza bera gertatzen ari zen. Espainiako trantsizioa izan denaren isla perfektua.

Lluís Llach i Grande

Girona, 1948

Musikagile katalana eta kantari ezkertiarra. *Nova cançó* mugimenduko ordezkari nagusi gisa ezaguna. Francoren erregimenaren aurka bat egitera deitzen zuen *L'Estaca* kanta mitikoa sortu zuen. Politikan, Junts pel Sí koalizioako diputatua izan da Kataluniako Parlament-ean 2015etik 2017ra. Celler Vall Llach upategia sortu zuen 90eko hamarkadaren hasieran, Priorat-eko Jatorrizko Izendapeneko ardoak ekoizten dituen.



L'Estaca zure kanta ereserki moduko bat da?

Jendeak ikur gisa hartu izana pribilegio bat da, baina ez da nire meritua. Ez dut sentitzen nire kanta bezala. Eskuetatik ihes egin zidan 70eko hamarkadan eta ez dut berreskuratu. Pentsa liteke hori dela konpositore batek espero dezakeen gauzarik handiena eta ez dut arraro iruditu nahi, baina horren aurrean lotsa pixka bat sentitzen dut, horrek esan nahi baitu gauzak ez ditugula ongi egin. Belaunaldi honi gauzak konpondu gabe, etxea garbitu gabe, utzi dizkiogu.

68ko edo 70eko hamarkadako kanta batzuek ikur izaten jarraitzen dute, estatuko hainbat tokitako jende askorentzat onartezinak diren gauza batzuk salatzeko balio dutelako.

Figura mitiko bat zara.

A bai? 1,75 metroko altuerakoa, arrunta, osasun gutxiakoa eta harietatik tiraka egiten duen pertsona laster etorriko zaion zero puntura egokitzeke, hori baita orain egokitzen zaidana. Hori da egungo nire errealitatea, besterik ez.

Atzera begiratzen duzunean zer ikusten duzu?

19 urterekin hasi nintzen kantatzen eta berehala tren-makina gisa jarri ninduten. Korri egiten duzunean ez zara gauza askoz ohartzen, hala eta guztiz ere pribilegio fantastikoak bizi izan ditut. Egunean egunekoa bizitzen eta koherentea izaten saiatu izan naiz beti. Egia da kontzertu jendetsuak eman ditudala eta areto itzelak bete, baina niretzat hori ez da funtsezkoena. Niretzat komunikazio lana egitea izan da beti garrantzitsuena, kantatzeari utzi nion arte. Nik horrela ikusten dut.

Gitarra mobilizazio masiborako arma al da?

Nire kasuan gehiago zen lokartze masiborako arma! [irriz]. Gertatzen dena da, batez ere jendartearen parte bat oso atezuan dagoenean eta errepresio handia pairatzen duenean, katek erreferentzia gisa balio dutela komunikazio askerako, beste aukerarik ez dagoelako. Nik beti esaten dut 60 eta 70ko hamarkadetan kantariak basamortuko askatasun erreferentzia guneak ginela, nahiz eta zentsurapean aritu behar, zerbait esaten ahal genuelako.

Herritik sortutako mugimendua

“Kataluniaren aferan okerren ulertzen den gakoetako bat da sinestea dena Convergenciako bulego batean eginiko konspirazio judeo-masoniko moduko baten fruitua dela. Hori ez da horrela. Nahiko lukete horrela izatea, baina dena kalean sortu zen eta horregatik independentziaren aldekoak pasa ginen %14 izatetik %48 izatera. Horrek behartu ditu alderdiak estrategiaz aldatzera eta klase politikoa konpromisoak hartzera. Horregatik herritarrak oso eskertuak gaude. Bozkatutakoa gauzatzera konprometitzen ziren frogak behar genituen aspalditik eta baditugu. Horregatik batzuk kartzelan eta deserrian daude. Sentipen oso arraroa da. Etsipena, eta aldi berean poza, klase politikoa koherentea dela ikusita”.

Garai latzak

“Garai oso latzak datoz European. Mundua amildegia ertzean dago, Trump bezalako ergelekin eta agintari amaiezinekin: Txinakoa, Putin... Hemen zortea dugu. Espainiako Estatuaren onena da errepide mapa oso garbia duela. Ate birakariak jiraka ari dira etengabe. Berdin dio ezkerrek edo eskuinak agintzea, erabat bahituta dagoelako Estatua. Borroka egitea eta botoa ongi ematea baino ez zaigu geratzen. Ez da horren zaila! Horregatik gabilta ni bezalako zahartxoak hemen bueltaka, ‘gazteok, kontuz!’ esateko”.

Gaur egun ere nire etxean fantastikoa da. Katalanok “nire etxea” esaten diogu gure herrialdeari, eta han jende asko ari da musikagintzan. Berrito tentsiopean bizi garelako, seguruenera, bada jende piloa giza kontzientziarekin eta militantzia ahalmen handiarekin lanean. Musika bidezko mobilizazioa bukatu dela pentsatzen dutenek trankimazinak har ditzatela, honek luze joko du eta!

Zentsura zer den ederki ongi dakizu zuk. Zer pentsatzen duzu Mozal Legeaz?

Orain errepresioa legeztatuta dago. Francoren garaian ere bazen, baina ezin zuten esan demokratikoki legezkoa zenik. Herrialde batean Mozal Legea legezko egiten denean, erabateko demokrazia krisia dugula esan daiteke. Orain kantariak kartzelara doaz. Ez dut gogoratzen nire garaian kantari bati hiru urteko kartzela zigorra ezarri izana, agian buruak huts egiten dit, baina nik ez dut halakorik oroitzen. Orain, aldiz, ez bat eta ez bi dira auzibidean jarritakoak. Berdin txotxongilolariak edo urriaren 1eko erreferendumean jendeari emaniko jipoiak salatzeko protesta eginez sudur gorria jartzen dutenak. Badirudi Francoren garaiko katek gaurkotasan osoa dutela, eta hala iduri badu, hala delako izango da.

Katalunian beldur gara gure atzetik beste guztiak etorriko zaretelako. Kataluniako arazoa trantsizioaren porrotaren froga da. Bere notariotza agiria. 78an batzuek aurrera eraman nahi zuten etorkizunerako proiektuak huts egin zuen. Hau trantsizioaren ehorzketa da, porrot egin du eta gu gara horren erakusgarri. Interes politiko eta ekonomiko batzuk iraunarazteko egin zen trantsizioa. Denen artean, eskuinak eta ezkerrek egin dute, eta horregatik badira erresistentzia ikaragarriak. Funtzionarioek, ate birakariak, bahitu dute Estatua. Nik uste dut krisi ikaragarri baten aurrean gaudela. Katalunia termometroa da eta orain setio-egoeran gaude. Salbuespen-egoeratik pasa gara jada setio-egoerara. Ezin dugu gure iritzia adierazi eta ezin dugu politika egin agindu demokratikoak bete ahal izateko.

Nola dago Katalunia?

Une hauskorrean gaude, gure askatasunak ataka larrian jarriak daudelako. Estatuak ez dio inolako begirunerik herriaren borondateari, eskubide zibilei eta hautetsiei.



Nazioartetik espero baino laguntza gutxiago?

Guk sentiberatasun handiagoa espero genuen. Lehen urratsa izan zen Espainiako Estatuari esatea mahaian eseri behar zuela gurekin negoziatzeko. Ezetz esan du, beraz hurrengoan ez gara ezta saiaturko ere egingo, edo izatekotan, beste modu batez. Bigarren gauza pentsatzen genuena zen halako bakezaletasun erakustaldiaren eta zintzotasunaren aurrean Europa sentibera izango zela. Estatuak ez dira batere sentiberak izan. Nik, hala ere, esango nuke normala dela, haien estatusa defendatzen dutelako eta elkar babesten dutelako. Eta orain zer gertatzen ari da? Bada, poliki-poliki Kataluniako afera iritzi publikora iristen ari dela. Ez genuen lortu estamentu europarretaraino iristea, baina ari gara buelta ematen eta laster lortuko dugu herri estamentuetara iristea. Herritarrak sentiberak dira. Alemanian, Belgikan, Herbehereetan eta Suitzan zer esanik ez, badugu aldeko iritzi publiko bat oso garrantzitsua.

Horrek itxaropena ematen dit, Juncker eta bera bezalako beste beleengan eragina izan dezakeelakoan nago. Haien botere guneak babestu ahal izateko kasu egin beharko diete eta horren esperantza dut nik. Bien bitartean herri bezala saiaturen ari gara aurrera egiten eta oso zaila da.

Irudimena da *procés*-eko ezaugarri nagusietako bat?

Gu behartuak izan gara politika asmatzera. Pentsalari europarrek arreta handiz begiratzen gaituzte, besteak beste, estatu handinahi bati aurre egiteko indar aski ez eta sormen demokratikoa garatu behar izan dugulako. Puigdemontek ez zuen ihes egin beldurragatik. Jaun hori Bruselara joan zen kanpotik lana egin ahal izateko.

Zure jarduera politikoa nolakoa izan da?

Hurrengo aukera politikoa erretiratu nintzen, abenduko hauteskundeetan alegia, hautagaitza bateraturik ez zegoe-lako eta niri iruditzen zait, politikan

aditua ez den pertsona bat izanda, nire egitekoa iritzi desberdinak hurreratzen saiatzeari dela, baina talde bateragarri batean.

Tentsio handiko ikasketa izan da. Une onak eta oso zailak ere egokitu zaizkit. Nirekin zeudenek ibilbide politikoa eta profesionala arriskuan jarri dute eta horrek maila igotzen du. Halako parlamentu batean gauza askoz hitz egin daiteke. Koherentzia eta zintzotasuna jakintzat ematen zen. Horrez gain asko ikasi dut, esate baterako, zer nolako alderdikeriak dauden edo zeinen tresna zaharkitua den parlamentua. XIX. mendeko tresna da. Tempo politikoak ez datoz bat tempo sozial eta komunikatiboekin. Diplodoko talde bat [dinosaurio mota bat] astiro mugitzen, horixe ematen du. Formula berriak bilatu behar dira. Puigdemont eta bere kolaboratzaileen ideia handi bat da egitura errepublikazale birtual bat antolatzea.

Nik gaizki bukatu dut, depresioak jota, baina nire pastillatxoak hartzen ditut eta aurrera.

Zure negozioen inguruko datuak, zuk eginiko adierazpen batzuk...gauza asko erabili dute zure kontra. Kritikek min egin dizute?

Erasota sentitu naiz, baina inola ere ez gaindituta. Eskandalu handienetako bat izan zen esatea errepublika abian jar-tzean funtzionarioek gure legeak bete beharko lituzketela. Ez dakit zein parla-mentuk egiten dituen legeak beteak ez izateko. Horregatik faxista eta beste dei-tu didate. Hemen larria ez da Katalunia, Espainia baizik. Guk halako zartatekoak jasotzen ditugu han dauden komunika-bideengandik. Asko kantatu nuen Es-painia osoan eta Frantzian. Jende asko ezagutzen dut, baina imajina ezazu, adi-bidez, Valladolideko *progre* bat, kios-koan aukeran dituen *El País*, *ABC*, *El Mundo*, *La Razón* eta besteren bat are okerragoa. Egoera horretan Estatuak ez du armadarik behar. Gaur egun Esta-tuak bi beso armatu ditu, bata juridikoa eta bestea komunikatiboa. Zer pentsatu behar du herritar *progre* horrek irakur-tzen duenean bandera jaitsi dutela Kris-to lasaiago hil dadin?



“¡A por ellos!”

“Estatuak ez du ulertu botoei nola irabazi. Tankeekin agian, baina horrela demokrazia usteltzen doa. *‘¡A por ellos!’* astakeria, herritarrek beraiek ordainduko dute etorkizunean.

Gure esperantzatako bat da, sozialistek lokartu zuten Espainia, egunen batean esnatuko dela”.

Hemengo musikariekin harremanik ba-duzu?

Lehen bai, orain ez. Mikel Laboa nire anaiatxo nagusia zen. Ez genuen elkar asko ikusten. Gure adiskidetasuna ka-merinoetan landu behar izaten genuen kantatzera ateratzeko zain geunden bi-tartean. Lagunak betiko joaten direnean damutu egiten zara horrela bizi izana-gatik.

Zergatik utzi zenion kantatzeari?

Bizitza beti hiru ekitalditan banatu izan dut, Shakespearek obra gehienak beza-la, eta ez nuen hirugarrenera tren-ma-kina bat bezala iritsi nahi. Beste modu batez nahi nituen gauzak begiratu, nire zahartzaroa onartu eta nire bizimodua aldatu. 19 urte nituenetik ibili naiz kan-tuan eta pribilegioa izan bada ere, beste gauza batzuk ikasi nahi nituen. Afrikara joan nintzen kasualitatez, hasi nintzen idazten kasualitatez, upategi bat zabal-du nuen kasualitatez... Nire bizitza oso arraroa izan da, baina bizitzan gerta da-kizukeen gauzarik onena gertatu zait: gauza asko ikasi dut. ■

2017-2018

bizi ikerketa!

zientzia azoka
elhuyar da

zientziaazoka
elhuyar da

Ikertzaile gazteen Euskal Herriko zientzia-azoka

APIRILAREN

21^{ean}

larunbata

Bilboko Plaza Barrian,

egun osoz,

12:00etatik aurrera!

zientzia-azoka.elhuyar.eus

ANTOLATZAILEA

elhuyar
Zientzia

BABESLEAK

KOLABORATZAILEAK

SARTU ZURE AGENDAN!

Herenamamak



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Sekretu bat aitortu behar dizuet: nire bigarren abizena Casete da. Bai, Casete, zintak bezalaxe, baina “s” eta “t” bakar batekin. Lagun eta sende askok abizen bitxi hori armairutik ateratzera animatu naute, baina alferrik da. Oraindik ere nire baitan iseken beldur den nerabearen erreguak entzun ditzaket. Hori dela eta, kostatuko zaizue nire bigarren abizenaren arrasto publikoren bat topatzea.

2012an salbuespen bat egin nuen, “cassete” zinten sorkuntzaren 50. urteurrena ospatzen zela jakin nuenean. Garai horretako nire blogean artikulu bat idatzi nuen eta Radio Euskadiko kazetari batek irakurri eta elkarrizketa egin zidan. Nire aitite, Isidro Casete, harro-harro sentitu zen.

Zintek nire bizitzan izandako garrantziak nahikoa izan behar luke abizena aldarrikatzeko. Kazetari –cassettari– bokazioa neukanaren lehenengo froga, 6 urterekin nire amamaren etxean radiocassetearekin grabatutako irratsaio bat da. 8 urterekin Bizkaia Irratian lehiaketa bat irabazi nuen eta oparitzen zuten radiocassettean grabatzen nituen Euskadi Gazteako nire abesti kuttunak. Alabaina, Boirora uda-pasan nengoenean soilik sentitzen nintzen Casete abizenaz harro. Casete familia oso gustuko nuen: zaratatsuak, parranda zaleak, lirainak, herrian oso ezagunak ziren.

Aititek beti kontatzen du bere aitak, Ventura Casete zapatari galiziarrek, ironiaz erantzun ziola zinten jaiotzari: “Hara! Orain merke saltzen gaituzte!”. Ordura arte, kutsu frantseseko abizen arraro bat baino ez zen, akitanierria, izeko baten ikerketaren arabera. Egun abizen “vintage” bihurtu da. Nire lehengusu gazteenak ez du eskolan iseka gehiegirik pairatu; askoz jota, mp3 formatura migratu beharko duela. Espainiako Estatistika Institutuaren da-

Txikitan nire abizenen zerrenda ikasten ari nintzela –abizen euskaldunen arrastorik ez; “Casete, hori bai abizen egokia maketa batentzat!”, esan zidan lagun batek behin– jakin nuen birraititeren izena Ventura Casete Casete zela. Pletina bikoitza! Bere ama ezkongabea izan zen. Betidanik imajinatu nuen gizon lotsagaberen batek haurdun utzi zuela eta ardura ez zuela hartu

tuen arabera, soilik 28 lagunok daramagu abizen hori. Zintak bezala, guk ere iraugitze-data daukagu.

Tira, cassetteak bezala “enroilatu” naiz, baina azalpen hau ematea beharrezkoa nuen hurrengo istorioa kontatu ahal izateko. Txikitan nire abizenen zerrenda ikasten ari nintzela –abizen euskaldunen arrastorik ez; “Casete, hori bai abizen egokia maketa batentzat!”, esan zidan lagun batek behin– jakin nuen birraititeren izena Ventura Casete Casete zela. Pletina bikoitza! Bere ama ezkongabea izan zen. Betidanik imajinatu nuen gizon lotsagaberen batek haurdun utzi zuela eta ardura ez zuela hartu. Baina orain dela gutxi nire aititek egiazko bertsioa kontatu zidan: bere amamak –hau da, nire herenamamak– ez zuen emazte izateko bokaziorik; ezkondu orde, lau ferianterekin lau seme-alaba izan zituen. Nire aititek bihurrikeriaren bat egiten zuenean eta bere amamak “zer egin duzu, Isidro?” esanez errieta egiten zionean, Isidro maltzurki erantzuten zion: “Eta zuk, amama, zuk zer egin duzu?”.

Gabonetan gogora ekarri nuenean, aititek zera argitu zidan: pasadizo horren protagonista ez zen Ventura Casete Caseteren ama, bere amaldeko amama baizik. Ea korapilo honekin galtzen ez zaren: Isidroren bi amamak izan ziren ezkongabeak! Eta biak erabaki propioz! Edo, gutxienez, halaxe gogoratzen du nire aititek.

Nolabait, familiako moral arauen urraketen historia nire amarekin hasten zela uste nuen; 1980ko hamarkadan ezkontza zibila ospatu eta ondoren dibortziatu baitzen. Amama, birramama eta herenamamen bizitzak imajinatzen nituenean, ez nuen errebelia izpirik susmatzen. Aurreiritzi hori apurtu izana ere izan daiteke nire abizen guztiak, nire arbaso guztiak, aldarrikatzeko arrazoi eder bat. ■

Kataluniatik Nafarroara

Mediterraneoari begira idazten ari naiz, baina euskara barra-barra aditzen da inguruetan. Hizkuntzen gaineko kale-neurketa egitera, arras emaitza itxurosoa aterako litzateke. Pazko astea baita. Ikastetxeak itxita mugaz hegoaldeko lau lurraldeetan. Milaka familia euskaldun hondartza ondoko hoteletan, oinez, txirrin-duaz lasterrean Behobiako kamiseta soinean... Nafarroako euskalgintzako zenbait aurpegi ezagun ere atseden hartzen. Itxuraz, dena bare. Xingola hori gutxi paparretan. Pankarta handia Cambrilsko udaletxeko balkoi nagusian: *Llibertat presos politics*. Esteladak zenbait etxetan. Espainiako bandera bat edo bertze. Ostalaritza arloa poz-pozik, bazterrak oro jendez gainezka egon baitira Aste Santuan, hau da, hotelak, jatetxeak, tabernak eta dendak; aspaldiko partez, gainera. Madrilgo hedabideei kasu egitera, ordea, iduri lezake Monegroetan baino jende gutxiago ibili dela. Alkate andrea Esquerrakoa, PDeCat eta PSCrekin gobernu taldean. C's-k bi zinegotzi. Joan den abenduko hauteskundeetan, Arrimadasen taldea lehen indarra, eta inkesten arabera, garaile ere Estatuan, espainiar nazioaren aldeko mezuak bulkaturik, Kataluniako aferari erantzunez. Estatuko joera politikoek



Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá

ITZULTZAILEA

Nafarroako Ahal Dugun gertatu den gerra latza, hondagarria. Hori bai oparia UPNrentzat. Zenbaitek uste dute ez dagoela deus egiterik eta aldaketaren gobernuarenak egin duela

eragin handia izan ohi dute Nafarroan, eta Espainiaren batasunaren aldeko mezuek jarraitzaile aunitz bildu izan dituzte beti. Ez, ordea –dirudienez–, duela 30-35 urte bezainbertze. Konparazio batera, Iruñeko balkoiak Espainiako banderez josiak egonen ziren duela hiruzpalau hamarkada, Kataluniako

gertakarien haritik, orain Zaragozan egon diren bezala. Oraingo honetan, bai, egia da, bandera hori-gorri aunitz agertu dira nafar hiriburuan, baina ez da horrenbertzerako izan. Dena den, kanpo-faktore berri hori kontuan hartu beharko da nahitaez heldu den urteko hauteskundeei begira. Aurrekoan, txiripaz ez zen sartu Ciudadanos nafar Parlamentuan, eta orain, itxura guztien arabera, Estatuko joerak hauspoturik, langa ederki gaindituko du. UPN eta PPren kaltetan bada, gaitz-erdi, baina ez dago hain garbi. Horrelakorik ez zen espero duela hiru urte aldaketaren gobernu abiarazi zenean, ezta Podemosen beherakada orokorra ere (inkesten arabera), eta are gutxiago, Nafarroako Ahal Dugun gertatu den gerra latza, hondagarria. Hori bai oparia UPNrentzat. Zenbaitek uste dute ez dagoela deus egiterik eta aldaketaren gobernuarenak egin duela. Argi dago UPNk, PSNk, PPk eta Ciudadanosek 26 egiten badute, Esparza izanen dela lehendakari. Baina aurrekoan, gauzak estu-estu egon ziren, eta hemendik urtebetera ere berdin. Faktoreak faktore, urtebete dago jendea berriz ere aldaketaren alde pizteko, eta Ahal Dugu bozkatutako jendearen botoa atxikitzeko. Horixe da erronka. ■

**GUZTION LIBURUAK,
BIDEOAK, AUDIOAK...
GUZTIONTZAT**



BOOKTEGI
Guztion liburuak, guztiontzat

www.booktegi.eus

Hezkuntzarako iratzargailua



Andoni Mujika
IRAKASLEA
@mujikaandoni

Batzuetan gertatzen da diagnostiko kolektibo batzuk, ardura eragiten diguten arren, desaktibatu egiten direla. Lozorroan sartzen dira. Hezkuntzaren kalitatearekin ere horixe gertatzen zaigulakoan nago, erdi-geldi jarraitzen dugu. Horren seinale batzuk dira: irakasle dezentaren desmotibazioa, zenbait ikasleren ikasketarako gogo-eza, administrazioaren rol lausoa edota gurasoen hezkuntzarekiko kezka.

Zantzu horiek zuzenak balira uste dut irtenbidea ere aktore horien eskuetan legokeela. Eta batez ere, administrazio, irakasle eta gurasoengan.

Administrazioetik hasita, hezkuntzaren kalitatera gerturatzeko zenbait ekinbide proposatu lekiokie. Lehen: berrikuntza pedagogikoa dela kalitaterako bide zuzenena. Administrazioak berak lideratuta edota berritze esperientzietan dihardutenak lagunduz egin daiteke. Bigarrenik, unibertsitatearen laguntzarekin, beste aldaketa sakon bat dago egiteko: irakaslearen estatusa jasotzea. Hori lortzeko irakaslegaien puntako formazioa bermatu behar da, eta horrez gain, etorkizuneko irakasle horri exigitu behar zaio hezitzaile-bokazio garbia. Hirugarrenik, berrikuntzarako nahitaezkoa den formazioa, zentroen hornikuntza eta ratioetan inbertsio handiagoa legoke. Eta amaitzeko, ikastetxeen gobernantza eta kudeaketa ereduaren berrikuspena, irudimenez eta ausardiaz.

Irakasleak. Geu gara hezkuntzaren kalitate eta berrikuntzarako eragile erabakigarrienak. Funtzio hori betetzeko motibazioa eta bokazioa behar ditugu, eta inpresioa dut irakasle multzo bat ez dagoela lanean oso pozik. Irakaslea gogotsu ez badago ez du lanean bere onena emango, eta horrek lotura zuzena du eskaintzen den kalitatearekin. Esan daiteke motibazioa aktibatzeako proiektu pedagogiko eraldatzaile bat edukitzeak lagundu dezakeela. Ze uste dut gogo hori ez dela, dagoeneko, ordainsari handiago eta lan-ordu kopuru txikiagoekin pizten. Eta bokazioarekin, baxera, egin daitekeen gauza bakarra da bereizgarri hori irakasle izateko hautua egin aurretik ekarri.

Gurasoak. Zenbait zentzutan protagonismo askoz handiagoa behar dute ikastetxeetan. Izugarritzko ekarpena egin dezakete hezkuntza-kalitate terminotan eta hezkuntza-komunitatea artikulatzeko eta antolatzerako orduan.

Laburbilduta, hezkuntzaren kalitatera hurbiltzeko klabeak dira: lehenengo, irakasleen motibazioa eta bokazioa; horrekin batera, berrikuntza pedagogikoa, proiektua; baita irakaslearen estatusa eta formazioa jasotzea ere. Bestetik, gurasoen parte-hartzea; horrez gain, inbertsioak eta ratio egokiak izatea, eta amaitzeko, zentroen ahalduntzea eta gobernantza eredu autonomoak. ■

Super Carles



Itxaro Borda
IDAZLEA

Begia tai gabe luzatzen dugu Katalunia aldera. Zertan dugu Puigdemont? Ematen du xake partida erraldoia eramaten duela bere burua sakrifikatuz, preso edo erbestean diren beste bere hamar abentura independentista lagunengisara. *Com si fos ahir* telesailaren antzeko kulebroia da Kataluniako afera. Eskerrak *Polonia* emankizunak dirauela eta Messik Barça salbatuko duela.

Ez dakit konturatzen garenez zein neurritarainoko krimen sinbolikoa egin zuten iragan urriaren 27an Errepublika aldarrikatuz lauzpabost segundoz. Espainiaren erregetiar funtsa zalantzan

eman zen eta frankismoarekiko zilbor hertzea ebakitzear utzi. Aitaren hiltzea bezalako eginkizuna zitekeen eta hori Madrilek ez die barkatzen. Errepublika eta Espainia ideiak ez dira (oraino) uztargarri eta hondar berrehun urteotan errepublikazaleak dira beti gaztigatu, gerra zibil ugarien karietara.

Carles Puigdemontek, europar kartzelaren baten zokotik edo egun oroz agurtzen dudan Gregorio adiskide zahar errepublikazale amorratuak, papoan daraman hiru koloredun banderaren pin'sarekin, aldarrikatzen dutenak oihala bera iruten dute. ■



DANI BLANCO

EITBko eztabaida saioak

EMAKUMEAK JOKOZ KANPO

Oso boladan daude, iritzi sortzaile indartsuak dira: irrati-telebistetako tertulia saioez ari gara. Hitz eta pitz aritzen dira, makina bat gaiez, sarri elkarri hitza kentzen eta ahotsa goratzen. Solaskideen artean nabarmen gailentzen dira gizonezkoak. Datuak EHUKo ikertalde batek eskaini ditu. ARGIAk hainbat tertuliakide eta aurkezleren iritzia jaso du. Zergatik gonbidatzen dituzte hain emakume gutxi? Eta zergatik esan ohi diete emakumeek ezetz gonbidapenei? Zer egin daiteke desoreka konpontzeko?



Miren Osa Galdona
@Mirentx_U



“Tertuliakide izateari utzi nion, oso zaila delako emakume izanda hor egotea, eta are gehiago irakurketa feminista egin nahi baduzu”, Zuriñe Rodríguez kazetariaren hitzak dira. Urte batzuetan telebista nahiz irratietako solaskide ibili ostean, jarduna albo batean uztea erabaki zuen. Datuek diote EITBn eztabaia da saioetan egotea ez dela erraza, ezta ohikoa ere: EHUKo Emakumeen Ikusgaitasuna Hedabideetan ikertaldeak emandako datuen arabera, irratiko tertulietan, esaterako, emakumeen presentzia ez da heltzen heren batera ere, eta ohikoak dira emakumerik gabeko solasaldiak. Telebistan emakumeen parte-hartzea %35,5ekoa izan zen 2017ko azaroan eta urte berriarekin batera datuak ez dira asko aldatu. *El Programa de Klaudio* saioa esaterako, parekidetasunetik oso urruti dago: emakumeen parte-hartzea %26,81 da, eta normalean emakume batek eta bost gizonak osaturiko mahai-inguruak egiten dituzte. Rodríguezek bere bizipenetan oinarritu du zergatietako bat: kuota hutsa izatearen sentsazioa; ustezko berdintasuna

erakusteko emakume-objektu izatearen sentipena.

Ez da emakumeen ikusezintasunaren kausa bakarra: “Emakumeok ez gaude EITBko tertulietan eta normalizat hartzen da gainera”, dio Arantza Gutierrez EHUKo irakasle eta ikertzaileak. Bizi garen sistema patriarkalak emakumeari esleitu dizkion jokaerak zeintzuk diren kontuan izanda, euskal hedabide publikoan horiek nola gauzatzen diren aztertu dute EHUKo hiru irakaslek. Solasaldi politikoak hartu dituzte lagintzat Iratxe Fresnedak, Itxaso Fernandezek eta Arantza Gutierrezek. Mahai-inguruetako eztabaidetan fokua jartzearen arrazoia argi du Gutierrezek: “Gaur egun informazio asko dugu eta jendeak ez ditu egunkariak irakurtzen. Tertuliek zertaz hitz egin behar dugun erabakitzen dute”. Eztabaia horietan, ordea, emakumerik ez egotea ohiko joera zela ohartu ziren eta erne jarri ziren. “Tertulia ugari daude, baina emakumeek ez dute hitzik. Ez gaude hedabideetan eta horrek esan nahi du ez gaudela ikusgai”. Guztiairen gainetik ikuspegi androzen-

trista gailentzen dela atera dute ondorio. Dena dela, puzzle honen alde bakoitzak erantzukizunaren zati bat duela berretsi du eta badela garaia bakoitzak zein ardura duen argi izateko.

Norbanakoaren ardura

2016ko azaroan hasi eta 2017ko hila-bete berean jo zuten amaitutzat lehen ikerketa. Denbora tarte horretan EITBk eskaintzen zituen parrillako tertulia programa guztiak aztertu zituzten, irratia eta telebistakoak. Urte berriarekin batera lanean jarraitu dute eta euren webgune-ko azken datuen arabera, EITBk ez du tendentzia aldatu. Ikerketaren arabera, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legean ezartzen diren baldintzak bi saiok baino ez dituzte bete urteko lehen 31 egunetan. ETB1eko *Ahoz Aho* saioan emakumeen parte-hartzea %47,22 izan da eta ETB2ko *En Jake*-n %40,68.

Pilar Kaltzadak (Donostia, 1970) denbora “dezente” darama kolaboratzen irrastian eta telebistan. Oro har, bera egon den saioek “kezka” adierazi izan



Emakumeen ikusgaitasuna hedabideetan



Egunkarietako iritzi artikulua (2018ko urtarrila)

- Berria: %33
- Diario de Navarra: %10
- Deia eta Noticias de Álava: %16,5
- El Diario Vasco eta El Correo: %23,5
- Gara: %29



Irratietako solasaldiak (2018ko otsaila)

- Faktoria (Euskadi Irratia): %24,56
- Ganbara (Radio Euskadi): %22,50
- Boulevard (Radio Euskadi): %21,93

dutela nabarmendu du. Hau da, emakumeen eta gizonen hitza maila berean eman dadin lanketa egin dela lantalde horietan. “Zenbait kasutan argiagoa izan arren, orokorrean kezka antzeman dut. Emakume gehiago sartzearen aldeko jarrera zutenak ere badira; berdintasunaren marra gainditu eta hortik gora jotzen dutenak”. Azken urteotan kezka barneratzea lortu dela dio, baina bertan ainguratuta geratzeak ezer gutxirako balio duela eta aurrerapauso bat eman behar dela dio. “Kezka badago buruan, baina lortzen ez denean badirudi ez dela ezer gertatzen; ez dago oinarritzko irizpiderik eta saiakera hutsean gertatzea ondo ikusia dago”.

Amaia Cayero (Gatika, 1984) *Ahoz Aho*-ko aurkezleak bat egiten du Kaltzadak dioen jarrera aldaketarekin. Aldiz, bere saioan interes komun batetik abiatzen direla dio eta, azken emaitza saio parekidea izatea “berez” iriteten zaien zerbait dela. “Lehen minututik azkenera arte berdintasuna bermatzen ahalegintzen gara”. Kanpora begirako ariketa baino, berdintasunaren erronka barne lanketa moduan hartzen dutela dio Cayerok. Hala ere, “esfortzua” dela onartu du; baietza ematen duen emakume bakoitzeko lau gizoni ukatu behar baitzaie gonbita. Aste-roko plangintza bere gain dago, eta “erabateko” ardura duela dio tertuliakideak aukeratzeko orduan. “Ez da soilik zenbat emakume dauden mahaia inguruan, eguneko gaia zein den ere zehaztea garrantzitsua da eta gure saioan berdin-berdin heltzen diote gaiari gizon nahiz emakumeek”, adierazi du Cayerok.

Emakumeak ez badaude, gai batzuek aritzeak “ez duela zentzurik” jakitun da Dani Alvarez (Bilbo, 1977) Radio Euskadiko *Boulevard* irratsaioko aurkezle eta zuzendaria. EHUKo ikerketak zehazten duenez, emakumeen presentzia ez da heltzen heren batera irrati *Faktoria*, *Boulevard* eta *Ganbara* saioetan. Alvarezen saioan, emakumeen parte-hartzea %21,9 da, otsaileko datuak aintzat hartuta. “Arazo handia” dagoela jakitun, faktore asko aipatu ditu Alvarezek: irizpide jakin batzuei jarraitu beharra, alderdi politikoek bidaltzen dituzten bozeramaileak gizonezkoak ei direla eta joko-zelaia oso mugatua dela. “Hainbat emakumeri deitu izan diogu, aditu diren aldetik, eta ezetza jaso dugu. Badakite erreferenteak direla, baina ez dute hitz egin nahi. Hor ezer gutxi egin dezaket”.

Ezetzen itzala

Bada, zer dago ezezkoaren atzean? Nori jartzen zaio ezetzaren zama? Dani Alvarezek bederatzi urte daramatza irratiari eta bi joera nagusi antzeman ditu: bata, ordutegia dela eta *Boulevard* saioa goizean izaten da – emakumeak “baldintzatuta” daudela dio, haurrak eskolara eraman behar dituztelako, besteak beste. Bestea, emakumeak ez daudela prest edozer gairi buruz hitz egiteko. “Gai espezifikoa badira baietza esaten dizute baina solasaldi orokor baterako, aldiz, ezetz”. Honekin lotuta, pisua emakumeengan uztea ohiko joera dela dio Kaltzadak. “Ez bagaude ez gaudelako eta bagaude bagaudelako”. Emakume batek norbanakotik hitz egiten duenean, ema-

kume guztien ordezkari gisa ariko balitz bezala sentitzea ohikoa dela dio. Kontziliarioak ere zuzenean eragiten du; zaintza lanak eta familia noren gain dauden begiratzeko baino ez dago. Azkenik, eztabaidak elkarriketa kodean baino konfrontazio kodean ematen direla nabarmendu du Kaltzadak: “Konfrontazio kodea oso maskulinoa da. Botere borroka da eta tradizionalki gizonak borrokarako daude hezituta. Orduan, normala da emakumea deseroso sentitzea; ni neu hala sentitzen naiz”.

Ildo bera aipatzen du ikerketak eta Gutierrezek ere bat egiten du heziketaren faktoreari. “Emakumeen arteko sareak horizontalak dira eta segurtasun eza adierazteko hezi izan gaituzte. Hau da, normalean gure artean hitza hartzeko txandak errespetatu egiten dira, baina gizonen munduan sartzean ohartzen zara beraiekin ezin duzula berdin jokatu, ikusezin bilakatzen baitzara”. Zuriñe Rodríguez badaki zerbait horretaz eta arrakalak aprobeztatu behar direla dio hitza hartzeko: “Niri etsai giroko eremua iruditzen zait. Normalean bi emakume edo bakarrik egoten dira eztabaidan eta gizonen hitza kentzea oso zaila da. Emakume gehiagok parte hartzen duten espazioetan erosoago sentitzen naiz. Telebistan batez ere, espektakulua bilatzen dute, ez egingo duzun ekarpena”.

Gizonek eta gizonentzako formatuak

Eztabaida-formatu tradizionalak dira egungo telebista eta irrati tertuliak. Aurkezleak gai bat proposatzen die eta kolaboratzaileek bere iritzia ematen



Telebistetako solasaldiak (2017ko azaroa)

- Ahoz aho (ETB1): **%49,16**
- Ahoz aho+ (ETB1): **%45,83**
- En Jake (ETB2): **%35,12**
- El programa de Claudio (ETB2): **%20,63**
- 7 días (ETB2): **%47,78**

166 pertsonak hartu zuten parte tertulia programetan 2017ko iraila-urria-azaroan. Horietatik **59** (%35,54) ziren emakumeak, batzuetan emakume bera tertuliaz tertulia ibili zen.



Iturria: "Emakumeen ikusgaitasuna hedabideetan" ikerketa (EHU).

dute, bata besteari atzetik. Azken aldian ugaritu egin dira, baina emakumeen parte-hartzeak ez du bide bera jarraitu: 2017/2018 denboraldiko lehen hiru hilabeteetan –iraila, urria, azaroa– orotara 166 pertsona pasa dira zazpi tertulia programetatik, horietatik 59 izan dira emakumezkoak (%35,5). Hainbat kasutan emakume bera ibili da tertuliaz tertulia. Alvarezek ez du uste egungo solasaldiek euren funtzioa betetzen dutenik. Alde batetik, gai asko lantzen direlako eta bestetik, gehienbat telebistan, eztabaidak "kontrolaezinak" bilakatu direlako. Ikuskizuna lehene- tsi da, edukiaren aurretik eta hedabide publiko batek "beste balore batzuk" lantzen beharko lituzkeela iritzi du Kaltzadak. "Bronka baldin badago, badirudi biziagoa dela baina beste faktore batzuk lehenetsi beharko genituzke ikusle moduan".

Euskarazko saioek dituzte berdintasunaren alorrean daturik onenak. Zergatia bilatzeko beste ikerketa bat beharko litzateke, baina Kaltzada eta Cayerok bat egin dute *Ahoz Ahoko* eztabaidetan dagoen erritmoaz galdegindakoan: bertara doazen kolaboratzaileek kontzientzia bat dute emakumeen ikusgarritasunaz eta oro har, elkarrekiko errespetua dago oinarrian. Dena dela, saioak duen formatua eta emakumeek duten parte-hartzea erabat lotuta daudela uste dute. "Gaiarekiko sentikorrak garrelako izan daiteke, baina hori ere oso adierazle ona da", dio Kaltzadak.

Rodriguezek dio telebistetako tertulien formatua "patriarkala" dela eta gaiei be-

» PILAR KALTZADA, SOLASKIDEA:

"Konfrontazio kodea oso maskulinoa da. Botere borroka da eta tradizionalki gizonak borrokarako daude hezita. Orduan, normala da emakumea deseroso sentitzea; ni neu hala sentitzen naiz"

» ZURIÑE RODRIGUEZ, SOLASKIDE OHIA:

"Emakume feminista bezala, teorian emakumeonak diren gaiei buruz galdegingo didate: zaintza lanak, kontziliazioa, martxoaren 8ko balorazioa egiteko... Gai 'garrantzitsuez', ordea, gizonek hitz egiten dute: kontzertu ekonomikoa, politika, langabezia..."

giratu baino ez dela egin behar hortaz ohartzeko. "Emakume feminista bezala, teorian emakumeonak diren gaiei buruz galdegingo didate: zaintza lanak, kontziliazioa, martxoaren 8ko balorazioa egiteko... Gai 'garrantzitsuez', ordea, gizonek hitz egiten dute: kontzertu ekonomikoa, politika, langabezia... Hori ere indarkeria da eta eztabaidetan kuota hutsa garenaren sentsazioa indartu baino ez du egiten". Egoerari buelta emateko formakuntza funtsezkoa dela nabarmendu dute ikertzaileek eta bide horretan EITBk barne lanketa sakona egin beharko lukeela. "Hedabide publiko gisa, EITBk zaindu egin behar du edukiei ematen dien trataera. Langileei hizkuntza ez sexistaren inguruko ezagutzak ematea, adibidez, gaur egun oinarritzak izan beharko litzateke", adierazi du Arantza Gutierrezek.

Rodriguezek ere uste du euskal hedabide publikoan protokolo baten beharra dagoela, dagoena langileentzat baino ez baita eta kolaboratzaileak "babesik gabe" baitaude. "Ni askotan objektu sentitu naiz eta hori indarkeria matxista da. Babesten gaituen neurriak ez dagoenez, ez da salatzen baina ziur nago askori pasa zaiela". Ez da kasu bakarra: Pilar Kaltzadak ere pairatu ditu ondorioak. Adibide gisa, behin tertulia batetik atera eta zuzenean masaje-emalearengana joan zela kontatu du, giharretan zerman tentsioa askatzen. Emakume solaskideek kalte psikologiko eta fisikoak jasaten dituzte. Ikerketaren hipotesietako bat da hori, eta testigantzek hipotesia egiaztatzen dute.



**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com



TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com



Goikoa ez da ohiko argazkia, bi emakume eta gizon bat hizketan. Boulevard saioko solasaldian emakumeen parte-hartzea ez da heltzen herenera. Otsaileko datua %21,9 izan da.

Tertulia politikoetan aldaketa integrala emateko borondatea funtsezkoa da. Gizartearen egungo egoeraren isla dela nabarmendu du Gutierrezek. Hau da, beste esparru batzuetan bezala, gizonak dute aginte makila eta emakumeak botere horren baitan daude. Dani Alvarezek uste du aldaketa goitik beherakoa izan behar dela; EITBk egungo planteamendua berrikusi eta eredu berriak sortu beharko lituzkeela; egunerokotasunean, eskura dituzten baliabideekin, parekidetasuna lortzea zaila dela argudiatuta. Amaia Cayerok, aldiz, eguneroko jardunean jartzen du fokua eta emakume tertuliakideak lortzeko tematu egin behar dela nabarmendu du. Beharbada, aurkezle, editore eta produkzioko arduradunek erosotasunetik edo ohiko jokaeretatik atera beharko lukete berdintasunetik gertuago egoteko. Alvarezek zaila ikusten du “betikoei” ez deitzea eta erosotasun horretan ez erortzea.

Eztabaida politikoen egitura aldatzea lan konplexua dela dio Zuriñe Rodriguezek. Hedabideek azken hitza badute ere eta beraien espazioetan nork hitz egingo duen erabakitze gaitasuna duten arren, zuzenean eragiten duten beste faktore batzuk badirela nabarmendu du. Adibidez, ideologia ezkertiarreko hedabide nahiz alderdiek hartu beharko luketen jarrera: “Feminismoaren aldeko hedabide eta alderdiak badira, bidal ditzatela emakumezkoak gizonezkoen ordeztu hitz egitera. Hori

» **DANI ALVAREZ,
BOULEVARDEKO ZUZENDARIA:**

“Gai espezifikoko badira baietz esaten dizute emakumeek, baina solasaldi orokor baterako, aldiz, ezetz”

» **ARANTZA GUTIERREZ,
EHUKO IKERLARIA:**

“Gizonezko tertuliakideek emakumerik gabeko mahaietan esertzea baztertu beharko lukete”

beraien esku dago”. Alvarezek, aldiz, emakumeengan jarri du ardura eta tertulietan hitz egitera ausartu beharko lituzkeela azpimarratu du. Emakunderi ere bide honetan lagundu dezala eskatu dio, erreferenteak izan daitezkeen emakumeen zerrenda osatzen. Arantza Gutierrez ikertzaileak ere uste du ardura ez dela emakumeena soilik. “Gizonezko tertuliakideek isildu egin beharko lukete emakumei ahotsa emateko eta emakumerik gabeko mahaietan esertzea baztertu beharko lukete”. ■



Ahilan Waradarajah eta Viraj Mendis **“Negoziazioak ondo badoaz, Mandela bihur zaitezke, baina gerra galtzen baduzu, zure bila etorriko dira”**

Askatasun Tigreak gerrillaren amaiera izan zen 2009ko maiatzeko sarraskia. Sri Lankako armada sinhalarraren garaipenak amaiera eman zion *de facto* independentea izan zen Tamil Eelam-eko estatu saiakerari. Genozidioa ere izan zen hura, Viraj Mendis eta Ahilan Waradarajah ekintzaileen arabera. Sinhalarra bata, tamil etniakoa bestea, hori azaltzera etorri ziren otsailean Euskal Herrira Alemaniatik.



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

Mapan India handiaren azpian ikusten den arrautza formako irla dugu Sri Lanka, garai batean Zeilan zeritzona. Sinhalak edo zingalesak Sri Lankako 21 milioi biztanleen %70 inguru dira eta irlaren

erdialde eta hegoaldean nagusi dira. Colombo hiriburuko gobernua kontrolatzen dute independentziaz geroztik eta erlijioz budistak dira. Tamilak, bestalde, biztanleen %15 inguru dira, irlaren

ipar-mendebalde, ipar eta ipar-ekialdeko kostaldeak hartzen dituen zerrenda estu eta luze batean bizi dira eta hinduismoa dute erlijio. Biztanleen %10 Sri Lankako musulmanak dira eta beste %5 inguru *plantazioetako tamilak* dira, XIX. mendean irlaren erdian te landaketetan lan egiteko, britainiarrek Indiatik eramandako tamil talde baten ondoren goak. Izan ere, Sri Lankan baino tamil populazio handiagoa dago Indian, 60 milioi inguru, India hegoaldeko Tamil Nadu eskualdean.

Ezezagun xamarra zaigu Sri Lankako egoera, baina hizkuntzaz, kulturaz eta erlijioz oso ezberdinak diren etnia handi bien arteko gatazka luzea izan da azken ehun urteotan. Britainia Handiak 1948an eman zion Zeilani independentzia mugatua, domeinu moduan eta *Commonwealth* barruan geratuta, baina hasieratik sinhalarrak izan ziren gobernuan nagusi. 1972an Sri Lankako errepublika aldarrikatu eta sinhalar nagusitasuna estatu politika ofizial bihurtu zen, tamildarren hizkuntza zokoratu eta euren botere apurra suntsitzeko helburuz. Errepresio giro hartan, 1976an Tamil Tigreak sortu ziren, Tamil Eelam estatu independentea lortzeko helburuarekin. Eremu nahiko zabala kontrolatzea lortu zuten ia 30 urtez.

2002 eta 2006 artean, Norvegiak eta Alemaniak bultzatuta, su-etena egon zen indarrean eta bake negoziazio gorabeheratsuak izan ziren. 2004an tsunamiak nagusiki tamilen kontrolpeko gunek jo zituen eta haren ondorengo desadostasunek eragina izan zuten bake prozesuaren porrotean. 2006tik aurrera, Tigreen kontrolpeko eremua gero eta txikiago bihurtu zen eta 2009ko maiatzean Tamil Eelamen akabera heldu zen: 50.000 tamil inguratuta zeuden zazpi kilometro koadroko lur zerrenda txikian. Sarraski bortitza izan zen Tamil Tigreen suntsiketa, genozidioa tamilen eta hainbat erakunderen arabera. Operazio militarrean 70.000 tamil hil zituztela adierazi zuen NBEk. Beste iturri batzuek kopuru hori askoz handiagoa dela diote. Halere, nazioarteko komunitatearen erreakzioa oso epela izan zela salatzen dute tamilek. 2013an Herrien Auzitegi Iraunkorra (ptsrilanka.org) nazioarteko ekimenak, gaia ikertu ostean, genozidioa izan zela ebatzi eta AEB zein Britainia Handiaren konplizitatea salatu zuen.



» “Suitzako bankuek tamilei dirua uztea negozio ona izango zela uste izan zuten”

Hondartza batean amaitu zen tamilen estatu saiakera, Tigreen presidentea, soldadu gehienak eta milaka zibil hilda. Ondoren, tamil egitura guztiak desegin eta euren guneen okupazio militarra etorri zen, atxikitze gunek, kasta sistemaren berrezartzea, sinhalartoponimoen ezarpena, populazioaren hezurretarainoko umiliazioa... Ahilan Waradarajahek irudi grafikoa erabiltzen du: “Tamilentzako futbol txapelketa antolatu eta saria whisky botilak izan ohi dira, alkoholismoa sustatzen ari da gobernua tamilen artean”.

Viraj Mendis, sortzez sinhalarra izanik ere, tamilen aldeko ekintzaile nekagaitza da: “Tamalez oso gutxi gara tamilen aldeko sinhalarrak, nolabaiteko babesa bai, baina baldintzarik gabe tamilen autodeterminazioa oso gutxi onartzen du. Adibidez, Turkiako ezkerrean bada jende asko kurdien eskakizunei irekirik, zenbat eta erradikalagoa izan, orduan eta aukera gehiago dago kurdien alde egoteko. Sri Lankan, ordea, sinhalarren artean ezker erradikala ere tamilen aurka dago. Antiinperialismoa sinhalar nazionalismoari lotua ikusten

dute, marxistak direla diote, baina *chauvinismo* handiarekin, estatua irauli nahi dute baina bere izaera sinhalarra erabat mantenduz. Marxek esan zuen beste nazio bat zapaltzen duen nazioak bere kaiteak forjatzen dituela. Benetan estatua irauli nahi baduzu, egitura osoa irauli behar duzu”.

1973an heldu zen Britainia Handira Mendis, ikasle bisa batekin, baina han geratu eta ekintzaile politiko moduan nabarmendu zen. 1986an, deportazio agindua jaso eta Manchesterreko eliza batean hartu zuen babes. Haren aldeko kanpaina sonatua antolatu zen, baina 1989an, poliziak elizara indarrez sartu eta Sri Lankara deportatu zuten. “Deportazioak zerikusi handiagoa izan zuen nik Britainia Handian egindakoe-kin, izan ere, jendearen deportazioen kontra ari nintzen, arrazismoaren aurka funtsean, eta nire bila etorri ziren esanez ‘nola aritzen zara jendearen gertatzeko eskubidearen alde zeuk ez baduzu hemen gertatzeko eskubiderik?’. Barne kontua zen, baina deportatuz gero erregimenak hilko ninduen beldur ziren britainiarrek. Beraz, akordio batera heldu ziren erregimenarekin eta urte batez Sri Lankako pertsonarik babestuena izan nintzen, denek bizirik nahi ninduten, baina iraungitze data zuen segurtasun hark, beraz, Alemaniara ihes egin nuen”.

Alemanian errefuxiatuen aldeko lanean dihardu, Bremengo International Human Rights Association elkartearen sortu zuen eta *humanrights.de* webgunea



editatzen du egun. Hor informazio ugari aurki dezakegu azken asteotan Suitzako Bellinzona hirian izan den epaiketaren inguruan. 13 lagun epaitu dituzte Tamil Tigreei 13 milioi euro inguru helaraztea leporatuta. Zortzi aste iraun duen prozesua martxoaren erdialdean amaitu da eta epaia ekainean emango du Suitzako Auzitegi Federalak. Sri Lankako 50.000 lagun bizi dira Suitzan, gehienak tamil errefuxiatuak, eta oihartzun handia izan du auziak.

Tamila da eta Tamil Eelamen jaio zen Ahilan Waradarajah 1975ean, baina bederatzi urte zituela Alemaniara mugitu zen familiarekin. “Aita kazetaria zen eta Colombon bizi ginen, baina 1983an tamilen matxinadak izan ziren, ondoren errepresio handia izan zen eta erbesteko bidea hartu behar izan genuen”.

2010ean tamil ugari atxilotu zuten Alemanian, Waradarajah bera tartean, eta Suitzan bezala, Tamil Tigreei dirua helaraztea leporatuta. “Estatubatuarren eraginez, 2007az geroztik Europar debekatuta dago tamilentzat dirua batzea, baina bi urtez Alemaniako Poliziak ez ikusiarena egin zuen. Guk 2009an dirua batzeari utzi genion, genozidioaren ondoren lurraldearekiko konexioa galdu genuelako”, azaldu du berak. Gerra galdu ostean etorri ziren atxilotetak, izan ere, bake prozesua babestu zuen Alemaniak, baina gerora aldaketa sumatu du Mendisek: “Irtenbide negoziatua erdietsiko zelakoan, baikortasuna zegoen, nazioarteko komunitateak irten-

» “AEBek Sri Lankako bake prozesua zapuztu eta tamilen suntsiketa gogoz bultzatu zuten”

bide politikoa nahi zuen, baina AEBek presio handia egin zuten. Bide militarak irabazi ostean, garaileen posizioa ere nagusi bihurtu zen eta galtzaileena zigortu beharra zegoen”. Hor kokatzen du berak Suitzan amaitu berri den epaiketa eta Alemaniak ere tamilekiko jarraera AEBen eraginez gogortu duela uste du: “Negoziazioak ondo badoaz, Nelson Mandela bihur zaitezke, baina gerra galtzen baduzu, zure bila etorriko dira”. Suitzako bankuen jarrera ere kritikatzeko du: “Bankuak ez dira inozoak, momentu hartan tamilei dirua uztea negozio ona izango zela uste izan zuten, aldi berean Colomboko gobernuari ere dirua ematen zioten, ez baitzituzten arrautza guztiak otzara berean jarri nahi”.

AEBek “bake prozesua zapuztu eta tamilen suntsiketa gogoz bultzatu” zutela argi du Mendisek: “AEBek uste zuten bake negoziatioetan jendea erosi ahal izango zutela. Tigreek ‘saia daitezela, bada’ esan zuten. Hauteskundeak egin eta bozken %80 lortu zuten Tigreek. Azkenean estatubatuarrak tamilak boterea bereganatzen ari zirela ikusi eta gerraren hautua egin zuten”.

Tigre sozialistak ez zituen begi onez ikusten George Bushen gobernuak, baina bere jarreraren arrazoi geoestrategikoak izan zirela uste du Mendisek: “Irakeko gerran, Trincomalee portua erabili nahi izan zuten AEBek Iraki eraso egiteko, baina tamilek ez zieten helburu horretarako utzi nahi izan eta Diego Garcia irla urrun eta isolatua erabili behar izan zuten plataforma moduan. Bushen ‘gurekin edo gure aurka’ hartan Tigreak aurka zeuden, eta Colomboko Gobernua, aldiz, alde”. Bere irudiko, kanpoko indarrak izan ziren bake prozesua zapuztu zutenak. “Bazen barne elementu bat, amerikarrek irla barruko eskuineko indarrak mobilizatu zituztelako. Europa eta Suitza Tigreak legez kanpo uztearen aurka zeuden, baina Condolezza Ricek behartu zituen”.

Komite Internazionalistak taldeko kide Gontzal Martinez de la Hidalgak ondo ezagutzen du tamilen borroka. Haren eskutik etorri dira Mendis eta Waradarajah Euskal Herrira eta, nazioartean Tamil Tigreen inguruan zabaldu den irudi bortitza gorabehera, Tamil Eelameko “oso esperientzia interesgarria” izan zela dio, “ezkerreko politikak ezarri ziren eta lorpen sozialak izan baitziren arlo askotan”. Mendisek horien artean kasta sistemaren suntsiketa eta emakumeen askapenerako urratsak nabarmendu ditu: “Emakumeek gehiago irabazi zuten, horregatik emakumezkoen miliziek azkeneraino borrokatu zuten, hilko zituztela baitzekiten”.

Egungo estrategiaz galdetuta, Waradarajak ez du erantzun argirik eman: “Jendeak oroitzen ditu Tigreen garaiko lorpenak, badakite zer galdu zen. Gauzak antolatzen saiatzen ari dira, baina atsekabe handia dago tamil gizartean”.

2015ean gobernu aldaketa egon zen Sri Lankan: Tamil Tigreak garaitu zituen Mahinda Rajapaksak hauteskundeak galdu zituen eta horren ordez, AEBek eta britainiarrek babestutako Maithripala Sirisenak hartu zuen boterea. Adiskidetzearen aldeko mezua zuen Sirisenak tamil askoren babesa jaso zuen, baina tamilek aldaketarik ez dute sumatu. Nolabaiteko autonomia baten aukera ere urrun ikusten du Mendisek: “Genozidioaren aurretik baino demokratiziorako aukera gutxiago dago orain, sinhalarrak irabazi dutelako. Nagusi sentitzen dira eta, beraz, ‘zergatik eman ezer garaile atera bagara?’ pentsatzen dute”. ■

“Proiektu sendoa daukagu, ongi ari gara, eta zergatik eskatzen digute bete ezin duguna?”

Baldintza guztiak bete dituzu herritar legal bihurtzeko (kontzeptua bera gogorra da), autonomo gisa kotizatzen zabilta kale-saltzaile, eta bat-batean administrazioak esaten dizu irabazi dezakezuna baino gehiago kotizatzen ez baduzu, berriz ere paperik gabe utziko zaituela, berriz ere poliziaren aurrean ihes egitera kondenatuko, Afrikara itzularaziko. Horixe egin berri dute Senegaletik migratu zuten kale-saltzaileekin. Bilbon bizi diren horietako hirurekin hitz egin dugu.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Baba Mbaye (35 urte, horietatik 11 Bilbon), Khadim Sambe (32 urte, 7 Bilbon) eta Boubacar Diouf (47 urte, bi eta erdi Bilbon) izan ditugu solaskide. Bilboko kale-saltzaileen Mbolo Moye Doole elkarteak kideak dira; zortzi bat urte ditu elkarteak eta 100 lagunetik gora dira, denak senegaldarrak, batzuk legalak eta beste batzuk oraindik ez (bertan hiru urte bizitzen daramatzazula egiazta-
tu arte, adibidez, ezin duzu paperik eskuratu; alegia, iritsi eta lehenengo hiru urteetan bai ala bai ilegala zara). Paperik gabeko mantero izateari utzi eta kale-saltzaile legal bihurtzeko urratsak eman dituzte horietako askok, baina kolpe bortitza jaso berri dute administrazioetik. Baba Mbayek kontatu digu: “Lizentzia lortu genuen 2015ean, autonomo gisa kale-saltzaile aritzeko, eta urtebeterako bizileku-baimena eman ziguten. Urtebetez Gizarte Segurantzaren kotizatzen aritu ostean, hori guztia erakutsi eta beste bi urterako bizileku-bai-

mena berritu ziguten. Hori zen tratua, eta 200 euroko gutxieneko kotizazioa eskatzen ziguten, bertan bizitzen eta lan egiten jarraitu ahal izateko. Baina egun batetik bestera Espainiako Atzerriarreri Buruzko Legearen bidez erabaki dute 800 euroko gutxieneko kotizaziorik gabe ez dizkigutela paperak berri-tuko, eta gu ezin gara kopuru horretara iritsi. Hilabete batzuetan 200 euro lortzen ditugu, beste batzuetan 250, gehitu zergak eta fakturak, eta atera kontuak. Uda sasoiaren herrietako festak aprobetxatzen ditugu diru gehixeago lortzeko, baina 800 euroko gutxieneko kotizazioa ezinezkoa da guretzat”. Kontua zera da, hori ongi dakitela araua ezarri dutenek eta beraz helburua garbi dagoela: “Gu kanporatzeko estrategia baino ez da, bestela zergatik eskatzen digute zerbait, jakinik ezingo dugula bete? Proiektu sendoa daukagu, dena ongi egiten ari gara, eta zergatik eskatzen digute gehiago? Sakonean arrazakeria dago”. Gaur

egun lizentziarekin Bilboko kaleetan saltzen ari diren 60tik gora senegaldarri eragingo die irizpide aldaketak: paperik gabe geratzeko arrisku gorrian daude oraintxe bertan.

Elkarriketatuek esan digute beste hiri batzuetan kale-saltzaileei ez dietela 800 euroko gutxienekoa eskatzen bizileku-baimena berritzeko, Gizarte Segurantzaren kotizatzearekin nahikoa dutela. Iruñea, Bartzelona, Valentzia, Zaragoza, Cadiz, Sevilla, Granada... aipatu dizkigute. “Baina guri 800 eskatzen dizkigute; zergatik aplikatzen dute hemen Espainiako Legea eta beste lekuetan ez?”. Elkarteak lege-aholkulariari egin diogu guk galdera: beste toki horietan, legea malgua dela interpretatzen ari dira eta ez dizkiete baldintza hain gogorrak eskatzen (azken finean, bertan bizitzeko nahikoa bitarteko dituzula frogatzea da funtsean dagoen betebeharra), baina Bilboko Atzerriarrentzako Bulegoko buruarekin joan den astean bildu zen le-



*Ezker-eskuin: Baba Mbaye,
Boubacar Diouf eta Khadim Sambe.*

ge-aholkularia, eta oso bestelakoa izan zen erantzuna: "Esan dit legea aplikatu baino ez duela egiten eta berari ez dago kiola interpretatzea; politikariekin hitz egitera joateko, haien kontua dela, ez berea".

Berriz ere klandestinitatea, izua eta esklabotza

Gure elkarriketatuek ongi dakite zer den paperik gabe bizitzea, azken finean, lehenengo hiru urteetan hala biziraun behar izaten dute denek. Orain, egoera horretara birkondenatu nahi ditu administrazioak: "Paperak kentzen badizkigute, hasierara bueltatuko gara -diote-, egin dugun guztiak ez du ezertarako balioko, klandestinitatera itzuliko gara, pobreziara, ezin mugitu eta ezin gure herrialdea eta gure senide eta lagunak bisitatu, ezin lan duinik egin. Kaleko salmentan aritzen ez direnentzat, paperik gabe lan egiteak esan nahi du enpresari asko zutaz aprobetxatzea eta esklabotza baldintzetan aritzera derrigortzea; eta gure kasuan esan nahi du kale-saltzaile izatetik mantero izatera igarotzea, beti korrika eta poliziarengandik ihesi, beldurrez, paperik gabe harrapatzen bagaituzte agian Madrilgo CIE etorkinentzako zentrora eraman gaitzaketelako, edo hainbeste urte hemen eman ondoren edozein egunetan kanporatu gaitzaketelako. Eta horrela bizitzea, hori buruan, ikaragarria da".

Kaleko salmenta ilegala, gainera, falta izatetik delitu izatera igaro da Espainiako Estatuan, baina EAEn ez dago hala jokatzeo asmorik, inor ez omen dute kartzelan sartuko kalean saltzeagatik. Dena den, alternatiba ez da askoz itxaropentsuagoa: poliziak isuna jartzen badizu, aurrekari penala izango duzu espedientean eta bizitza guztirako arrastoa da hori, edozein paper lortzeko oztopo: bizileku-baimena eskuratzea zaildu diezazuke aurrekariak, edo herrialdetik botatzea erraztu, edo kontratu bat lortu eta aurrekari penalak badituzu, Gobernua tartean sartu daiteke eta kontratua ukatu diezazukete.

"Produktu faltsifikatuak bertako merkatari handiek saltzen dizkigute, zergatik ez horiek pertsegitu?"

Salgai jartzen duzunak ere badu ondorio, produktu faltsifikatuak saltzea debekatuta baitago eta zigorra txikiagoa edo handiagoa izango da, hiriaren

» EAEz kanpoko beste hiri batzuetan ez diete 800 euroko gutxienekoa eskatzen baimena berritzeko. Legea malgua dela interpretatzen dute eta ez dizkiete Bilbon bezain baldintza gogorrak eskatzen

» Denek bizi izan dute gertakariren bat poliziarekin. Khadim Samberi Iruñeko Sanferminetan gerturatu zitzaizkion: "Euren artean zioten, 'begira zein urduri dagoen, honek droga darama gainean'. Nola ez nintzen ba urduri egongo? Polizia etortzea ez da atsegina, batik bat zure egoera kili-kolo dagoenean"

» "Atzerritarrei Buruzko Legea bera da diskriminatzailea eta arrazista, jende bat bazterrean uztea duelako helburu, ekonomia beltzera bultzatzea; hori bai hipokrisia, gero esango dute beltzean egiten dugula lan, beste aukerarik ematen ez digutenean!"

arabera. "Gu gaude jomugan -kritikatu du Mbayek-, baina erosten ditugun produktu faltsifikatu horiek hemen erosten ditugu, bertakoek saltzen dizkigute, bertako merkatari handiek, guk ez daukagulako halako indarrik ez halako kapitalik produktu horiek ekartzeko; beraz zergatik ez dituzte merkatari handi horiek pertsegitzen? Zergatik egiten dute gure aurka?". Kale-saltzaileak dena txiki konpetentzia direla salatzea ere zentzugabea da, multinazionalak direnean merkatari txikiak itotzen ari direnak. Egitekotan, manteroek marka handien faltsifikazioak saltzen dituzte (Coco Channel, Adidas, Louis Boutton...) eta inozokeria da pentsatzea mantero multzo baten salmentek kalte egin diezaioketenik halako marka handiei. Marka horiek berak defraudatzaileak direla eta herrialde behartsuetan (bai, kale-saltzaileen jatorrizko herrialde horietan) jendea esklabizatuz aritzen direla kritikatzeko dute manteroek, moral bikoitza nagusitzen dela: "Zergatik jo ahulenen kontra, iruzur egiten duten eta esplotazio egoeren erantzule diren handi horiek zigortu ordez?".

Udaltzainak gainean

Bilbo nahiko lasaia dela diote hiru lagunek. Lizentziarik gabe kalean saltzen ari direnek batez ere udaltzaingoa izan ohi dute gainean; postua kentzeko eta joateko esan ohi diete maiz, baina manteroak salgai dituen produktuak eramaten dituen udaltzainik ere egokitu dakieke. Okerragoa omen da egoera beste leku batzuetan, komisarian bukatu dezakezulako, baina horietara ere joan beharra dute, herriz herri eta festarik festa ibili beharra, nahikoa diru ateratzeko. Boubacar Difouk oraindik ez du lizentziarik, eta ez da arriskatzeko: "Ni ez naiz Bilbotik ateratzen, hatz-markak hartzen dizkidaten egunean izorratu egingo naute eta nahiago dut hemen geratu, espedienteak ez zikintzeko". Hala ere, Bilboko Unamuno plaza ondoan geratuarazi zuen poliziak duela gutxi, salgaien zakua gainean: "Udaltzainek poltsa erakusteko eskatu zidaten eta produktu guztiak eraman zizkidaten".

Denek bizi izan dute gertakariren bat poliziarekin. Khadim Samberi Iruñeko Sanferminetan gerturatu zitzaizkion, eta oso gaizki pasa zuen: "Euren artean zioten, 'begira zein urduri dagoen, honek droga darama gainean'. Nola ez nintzen



ba urduri egongo? Polizia etortzea ez da atsegina, batik bat zure egoera kili-kolo dagoenean". Faltzeseko jaietan ere Guardia Zibilak atzeman zuen eta bi urtez epaitegira sinatzera joan behar izan du, CDak saltzeagatik. Ondoren epaiketa izan du, 7.000 euro eskatu dizkiote, baina ez dauzkanez, azkenean 50 orduko lana egin beharko du Espainiako Gobernuarentzat.

Ez, pobreziatik ihesi datozen migrazioaileek hemen ere ez dute bizimodu batere erraza aurkitzen, aterik ez die irekitzen gure gizarteak eta horregatik da hain garrantzitsua euren arteko elkartasuna. Komunitate sendoa osatu dute eta elkarri laguntzen diote, batez ere norbait berria etortzen denean. Euskal Herrian oro har jendeak ongi tratatzen dituela diote, baina noizbehinka han-hemen entzuten diren ekintza xenofobo eta faxistek beldurra eragiten dute. "Politikariek ardura handia dute -uste du Mbayek-, gaizki hitz egiten badute etorkinen inguruan, gero jendeak

Bilboko kale-saltzaileak elkarretaratzek egiten ari dira, paperak mantentzeko irizpideak gogortu zizkietela jakin zutenetik.

ARGAZKIA: ECUADOR ETXEA

pentsatzen duelako etorkinak erasotzeko legitimatuta dagoela". Sambek gehitu du krisiaren errua beraiei leporatzen zaiela maiz, "eta amorrua dute gure aurka". Ideia horien atzean "diskurtso populista dago, hainbat politikari eta hedabideren diskurtsoa".

"Etorkina izateak ez luke delitu izan behar"

Paperak lortzeko trabak jarri ordez, erraztasunak ematea. Hori da eskatzen dutena. "Zenbat eta zenbat urte daramatza jende batek hemen, eta paperik ezin lortu -gogoratu dute-. Etorkina izateak ez luke delitu izan behar, paperek ez lukete pribilegioa izan behar, denontzako eskubidea baizik, lan egin ahal izateko, pobreziatik eta klandestinitatetik atera ahal izateko". Bizimodu duina lortzeko borrokan jarraituko dutela diote, auzi

honi irtenbidea emateko kalean presio egiten, nahiz eta badakiten afera sako-nagoa dela: "Atzeritarrei Buruzko Legea bera da diskriminatzailea eta arrazista, oztopoak jartzea duelako helburu, jende bat bazterrean uztea, ekonomia beltzera bultzatzea; hori bai hipokrisia, gero esango dute beltzean egiten dugula lan, beste aukerarik ematen ez digutenean! Senegaldarrik ez duzu ikusiko drogak saltzen edo dirua lortzeko indarkeria erabiltzen. Kalean saldu baino ez dugu egiten, zer du txarra horrek?".

800 euroko kotizazio eskakizuna kenduko duten esperantzarik ba al duten galdetu diegu. Baietz, esperantzarik gabe ez dagoela borrokarik. Eta etorkizuna nola ikusten dute? "Etorkizuna ez dago argi. Hemen urte asko eman ditugu eta hainbeste denbora pasa ostean ezin gara gure herrialdera ezer gabe itzuli. Legal izatea eta lan egiten jarraitzea da etorkizuna, aurrezteko eta baldintzak ematen badira gure herrialdera bueltatu ahal izateko". ■



Eta zuk, bisitari, ba al dakizu hemen euskaraz egiten dela?

Zumaia kaleetan ikusiko dituzu hemendik aurrera. Gidak azalpenak emango dizkie turistei: euskararen jatorriaz arituko da, non egiten den eta zein euskalki dituen esango die, hitzun kopurua asmatzeko zirikatuko ditu. Ez dute *flysch* ospetsuaz hitz egingo, euskal nortasunaz, kulturaz eta euskarari buruz baizik. UEMAk sustatu du ekimena eta haien belarrietara iritsi dena kontuan hartuta, tankera horretako bisita gidatu bakarra da Euskal Herrian.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: LUIS JAUREGIALTZO / FOKU

Zumaian martxoan abian jarri duten *Enigma bizia* izeneko bisita gidatua turismoa eta herri euskaldunak lotzen dituen hausnarketaren ondorioa da. UEMAk kide diren Lekeitio, Bermeo, Zarautz, Zumaia, Oiartzun, Bortziriak, Baztan eta Leitzaldeko Udalak ari dira lanean.

Imanol Haro UEMAk teknikariak azken hilabeteotan egin dituzten gogoetak

zerrendatu dizkigu. Honakoa lehenengo: Euskarri turistikoetan (eskuorriak, liburuxkak, webguneak...) euskara nola agertzen den kezka dute eragileek. Bate-tik, euskarriotan euskara gutxi darabilte; bestetik, bereziki kezkatzen dituen da euskarari buruz zein mezu ematen zaion bisitariari gune euskaldunetara doanean: "Europako hizkuntza zaharrena", "Euskara, babestu behar den altxorra"... Haroren esanetan museoko ondare agertzen da euskara. "Guk hizkuntza bizia jasotzea nahi dugu. Urola-Kostara datorren katalana edo frantsesa konturatu dadila euskaraz hitz egiten dela".

Zarauzko malekoia, negutik udarara azalberritzen

Lantaldean gogoetan ari diren udaletako euskara teknikariek eta UEMAk teknikariek bigarren hausnarketa jarri digute mahai gainean: gune turistikoetako hizkuntza joerak aztertuta, konturatu dira toki batzuetan hizkuntza aldaketa gertatzen dela negutik udarara. Zarauzko malekoi ezagunean azalberritu egiten dira terrazak. Neguan arbeletan menuak euskaraz daude eta udan ingelesez dira. Zerbitzariak lehen hitza euskaraz ez, baizik eta ingelesez edo gaztelaniaz egingo dizu. Taberna jabeak

33

Oscar García Jurado:

“Imajinario kolektibo andaluzetik oso bestelako kooperatibagintza sortzen ari gara”

Andaluziako Morón de la Frontera jaio eta hazia, lurralde ekonomian doktoratua da Oscar García Jurado. Sevillako Pablo de Olavide Unibertsitatean hainbat urtez aritu ondoren, bulego akademikoetatik kalera aldatzea erabaki zuen Autonomía Sur kooperatibarekin. Egun mugimendu sozialei eta SAT sindikatua edo Marinaleda kooperatiba bezalako proiektuei aholkularitza eskaintzen diete. Ezaguna da ekonomia eraldatzaileko euskal eragileen artean, eta ekintzailetasun soziala sustatzeko KoopFabrika programak gonbidatuta izan da gurean.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Ekonomia sozial eraldatzailea bultzada handia izaten ari da Euskal Herrian, Katalunian... nola dago egoera Andaluzian?

Andaluzian kooperatibagintzaz hitz egitean, nekazaritza lurjabe handien kooperatibez ari gara. Santuen izenak dituzten produktuak ikusten dituzue-nean, normalean erregimen frankistako sektore sozialenek sortuak dira 50eko hamarkada amaieran, prezioak defenditzeko. Baina 2008an Coop57 sortu genuen eta hortik aurrera beste kooperatibagintza erretzen ari da. Autonomía Sur-etik diskurtso bat sortzen ari gara kooperatiben inguruan, imajinario kolektibo andaluzean oso bestelakoa dena.

Huelvan edo Almerian ikusten ditugun azalera handiko baratzeak zer dira?

Gauza bera. Prezioak defenditzeko batu diren negutegien jabeak dira, baina ez dituzte lana, kontsumoa edo produkzio baliabideak kooperatibizatzen. Prezioak defenditzeko batzen dira, Europako merkatuetan marrubiak eta garaiz kanpoko barazkiak saltzen dituzten banaketa kate handien aurrean.

Marrubiak aipatu dituzu... Marokoko emakumeek biltzen dituzte, 13 urtetik beherako umeen amak, itzuliko direla bermatzeko.

Eta Bulgaria eta Errumaniako emakumeak ere jatorrian kontratatzen dituzte -CCOO eta UGT bitartekari direla, dena esan beharra dago-, aterki “legal” batekin muturreko esplotazio egoeran ekartzeko. Ekologikoki jasanezina da, bai akuiferoak deuseztatzen ari direlako, baita erabilitako ultra-teknologia hollandarrarekin zorpetuta daudelako ere. Manuel Delgado Cabeza ekonomialariak dio “produktzio plataformak” direla, ez nekazaritza: *input* kostu ikaragarria duten hondartzak dira.

Andaluziako administrazio publikoak “alderdi-kooperatibagintza enpresariala” sustatzen duela salatu duzue.

Andaluziako Juntak diru-laguntza handiak lortzen dizkie nekazal kooperatibei, baina ez dakit zeinek kontrolatzen duen zein. Azken batean, olio kooperatibak DCoop taldearenak dira, eta kapital italiarrari edo iparramerikarrari loturi-

ko agente globalen esku daude. Guztiz sinbiotikoa da.

Eztabaida dago horren inguruan. Diru-laguntza gutxiago jasota buruaskiako izango gara? Eremu publikoa ez al da herriarrok irabazi dugun eskubidea?

Neoliberalismoak zabaldu duen ideia da Estatuak ez duela ekonomian esku hartu behar. Eta hain zuzen, hori defendatzen dutenek jasotzen dute baliabide publiko gehien: I+G jada ez da existitzen enpresa handian, gezurra da, administrazio publikoak egiten du eta gero lizentziak pribatizatzen dira. Noski jo behar dugula laguntza horiek lortzera, jakina baliabide publiko horiek erreskatatu behar ditugula pribatuaren atzaparretatik. Arriskua zein da? Menpekotasuna. Baina horregatik ez diogu uko egin behar, ez da txuri ala beltz, jo dezakegu diputatiziora, udaletxera eta beste iturrietara gure proiektuaren finantza-autonomia arriskuan ez jartzeko.

Kendu behar dugu burutik enpresa kapitalistak buruaskiak diren ideia?



"Badago kazetaritza bat goian 'ekonomia' jartzen duena, baina ez duena kontatzen jendeak zer jaten duen lurralde honetan. Euskal Herrian jakin behar duzue zer dagoen Estepako mantekadoaren atzean"

Inor ez da buruaskia. Goi teknologia-ko kooperatiba lehiakor horrek nondik edaten du bada? Unibertsitatetik. Subentzionaturik daude, oinarrizko zientzian egiten den esfortzuaren bidez. Gertatzen dena da, nagusitu den kontakizunak itzalean uzten dituela laguntza horiek, eta aldiz, menpeko klaseek jasotzen dituztenak nabarmentzen ditu. Denbora asko aritu dira esaten Marinaleda proiektu subentzionatua dela.

Marinaleda nola dago orain?

Oso momentu esperantzarriar. Krisiak lehertu zuenean sufritu zuen, baina kooperatibistek pauso bat aurrera egin zuten eta orain egitan ari dira autogestionatzen; Manuel Sánchez Gordillok erreferentzia izaten segitzen du. Marinaleda ez da kontziente kanpora begira duen esanahiaz: finantza arazo larria izan zuenean, Coop57-k hilabete bakarrean 600.000 euro bildu zituen, eurek ez zuten sinesten hori lortuko genuenik, txuleatzen ari ginela uste zuten.

Zulo horretatik atera da funtsezko bi gauzarengatik: batetik, olibadia oso

ondo lantzen dutelako eta kapitalismoak esaten duelako olioaren garestia dela; eta bestetik, kooperatibistek kontrolatzen dutelako ekoizpena. Egun ez du kasik zorrik. Hurrengo pausoa zein da? Marinaledako jarduera ekonomikoak koherente izan behar du bana-keta alternatiboarekin, ekologiarekin, finantza etikoekin...

Euskal Herrian Koop57 duela urte gutxi sortu da, Andaluzian aldiz esperientzia gehiago duzue finantza etiko eta solidarioekin.

Bere laguntzarik gabe ekonomia sozialeko erakunde asko hilda leudeke. Ez dago Andaluzian Coop57 bezalako erreminta praktiko, baliagarri eta hain ongi funtzionatzen duenik ekonomia eraldatzeko. Eta baldin badago esan diezadatela zein den. Finantzen mundu konplexuan, dirua baino gauza kapitalistagorik ez baitago, gai izan da asanblearioa mantendu eta mugimendu sozial izaten segitzeko. Eta efizientziaz: 30 milioi euro baino gehiago kudeatzen dute hamar langileren artean.

Eta nola egiten da hori?

Kudeaketa sozial eta demokratikoari uko ez egiten. Hainbeste milioi esku artean, normalena litzateke banku konbentzionalak nola egiten duten begiratzeara... Baina haien antza hartuz hobeto joango zaigula uste badugu, oker gaude. Are gehiago esango nuke, lan taldean aritzeko gure gaitasunaren aurrean, enpresa kapitalista askotan "kalitatea" eta "kolaborazioa" hitzak erabiltzen hasi dira; taylorismoa amaitu eta toyotismoa hasi zen unetik, gutxi batzuen esku dauden kooperatiba kapital-pilatzaileak izan nahi dute. Ez gaitezen haiengana joan, haiek gurengana datozenean.

Autonomía Sur-en sindikatu eta kooperatibei aholkua ematen diezue, tartean kooperatiba turistikoa bati ere bai. Nola da hori?

Euskaldunei hainbeste gustatzen zai-zuen Conil de la Fronteran 50 ostatu txiki bigarren mailako kooperatiba batean antolatu dira. Campito ostatuaren inguruan bildutako jende batek esan zuen ez zuela jarraitu nahi Booking-i dirua

ematen, ekonomia kolaboratiboarena amarrua delako...

... Euskal Herrian ere pisu turistikoekin eta horrelako atariekin kezka handia dago.

“Plataforma kapitalismoa” dira azken batean. Conileko ostatu hauek Booking-i ordaindu beharrean euren erreserba zentrala sortu zuten Conil Hospeda kooperatibaren bidez, hala interneten kokuatu dira. Hurrengo pausoa izango da kontsumo turistiko alternatiboa sortzea: esplotaturiko *Kelly*-rik gabe, aberastasuna banatuz, tokian bertan erosketa kolektiboak eginez... Erronka zein da? Kooperatiba bat muntatzea erraza da, baina kooperatibistak sortzea oso zaila. Pertsona horiek elkartzen badira soilik etekinak handitzeko, ez dira ino-
ra joango. Baina suntsituriko kostalde andaluzaren kanonetatik salbatu den Conil bezalako herri ikusgarri batean, lurraldean txertaturiko garapen turistikoa eredu berria sortzen badute, hori beste kontu bat da.

Esku artean duzuen beste proiektu bat Portal de Andalucía da. Beharra ikusten zenuten ekonomiako albisteak beste modu batean azalduko dituen interneteko ataria sortzeko?

Aholkularitza lanaz gain ikerketa ere egiten dugu eta harremana dugu gure ideiekin bat egiten duten unibertsitateko jende batekin; haiei artikulu-idazle moduan espazio bat eskaini diegu atari honen bidez. Aktualitateari ere beste norabide bat eman nahi diogu –zer ari da gertatzen Andaluziako Parlamentuan?–, eta gure inguruan dabilen sindikatu eta erakundeak ikusgarriago egin. Ez zen halakorik existitzen, eta oso gaizki eginda ere, zer bait bada behintzat. Guk halakoak bultzatzen ditugu eta gero paretik kentzen gara... Badugu antzeko esperientzia banatzaile alternatibo batekin.

Banatzailea?

Interneteko erosketa plataforma bat da, Andaluziako Coop57ri loturiko produktuak edo Marinaledako zigilua daramatenak eskaintzen ditu. Ekonomia eraldatzailearen bermea dute: pasta ekologikoa, artisau garagardoa... Orain gutxi elkartu ditugu SAT sindikatuaren interneteko denda, Marinaledakoa eta Lamedina. coop. Nolabait, sartzen dena zentralizatu



Oscar García “lanaren burujabetzaz” aritu zen Arantzazun martxoan, KoopFabrikaren eskutik. “Aurpegia behar da hemen horretaz hitz egiteko: burujabetza ekonomikorik gabeko lurraldetik dator. Baina ez daukagunaz pentsatzetik hitz egingo dut, bestela ez ginateke gauden tokitik mugituko”.

» **“Ez dago Andaluzian Coop57 bezain ongi funtzionatzen duen erremintarik ekonomia eraldatzeko; izaera asanblearioa mantendu du, eta efizientziaz”**

nahi dugu, baina irteten dena deszentralizatu, SAT, CGT eta eragile sozialen tokiko egoitzetan edo gune okupatuetan ere produktu horiek egon daitezten. Kontsumo militante horrekin enplegua sortzea da ideia. Guk hori bultzatu dugu, baina ahal dugun neurrian bere kabuz segi dezala nahi dugu. Portal de Andaluciarekin ere gauza bera da, bihar kazetariak-edo hurbiltzen bazaizkigu...

Atarian ez dago jenderik eskusiban lanean?

Ez, agian jarraitu nahi dugulako ekonomia gaiak beste modu batean lantzen. Badago kazetaritza bat goian “ekonomia” jartzen duena, baina ez duena konstatzen jendeak zer jaten duen lurralde horretan. Euskal Herrian jakin behar duzue zer dagoen Estepako mantekadoren edo Jabugoko urdaiazpikoaren atzean, nolakoa den ahora eramaten dugun mahairako oliben balio-katea, zer

gertatzen den ontziolekin... Hori prentsa ekonomikoan ez da agertzen.

Badaude hainbat Andaluzia: Sevilla edo Granada bezalako hirietakoa eta ikusezina den landa gunekoa. Hor ez daude *jornaleroak* soilik, agroelikadura industrian eta ehungintzan prekaritate besterik ez diren azpikontratazio-kateak daude. Parisen Loewe markako poltsa bat 200 euro ordaindu dezakezu, baina poltsa hori Ubriqueko soto batean dagoen emakumeak egin du 3 euroren truke.

Azpikontratazioa, besteak beste, erai-kuntzan gailendu da Euskal Herrian. Eta Andaluzian?

Astakeriak egin izan dira. 2005ean Morón de la Fronteran Sevilla II kartzela eraiki zen. Mugimendu sozialak antimilitaristak ginen, basea hor dagoelako, baina inoiz ez genuen kartzela zalan-tzan jarri; boterearen manipulazioa ikaragarria izan zen enplegua hitzemanen eta azpikontratak etortzen hasi ziren... Baina “sufrimenduaren industriatik” herrian azkenean ez zen ezer geratu eta hamabost urte geroago jarraitzen dugu fokua hor jarri gabe. Espetxeak eraikitzen dira –Andaluzian hamar daudela uste dut– baina pertsona batek zainak moztan baditu bere ziegan ez dago albisterik prentsan, ez onik eta ez txarrik, eta pertsona batek zainak moztu ditu Puerto de Santa Marían. ■

MAITASUN GUTUNAK **FORD**ENTZAT



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Bienville Parish (Louisiana, AEB), 1934ko maiatzaren 23a. Bonnie Parker eta Clyde Barrow gaizkile bikote ezaguna harrapatu eta hil zuten hainbat estatuko poliziek eta FBI-k (orduan oraindik BOI zuen izena). Auto barruan zeudela balaz josi zituzten.


Ordurako ezaguna zen bikotea. Ofizialki, hiru urte ziren "etsai publikotzat" zituztela, baina askok miretsi egiten zituzten, Robin Hood garaikideak bailiran. Heriotzak mitoa elikatu besterik ez zuen egin.

Zuloz jositako Ford V8 autoa ikusgai jarri zuten berehala –eta gerora hainbat kopia egingo zituzten, benetakoa zein zen zalantzan jartzeraino-. Horrenbestez, bi urte lehenago merkaturatutako auto modeloarentzat ustekabeko eta doako publizitate kanpaina bikaina egin zuen gertakariak.

Bonnie eta Clyde hil baino hilabete lehenago, Clyde Barrowek Henry Ford (1863-1947) idatzi zion, bere produktarengatik zorionduz. "Biriketan airea geratzen zaidan bitartean, auto bikaina egin duzula esango dizut", hasten zen eskutitza. Gaizkileak zioen beti Ford V-a lapurtzen ahalegintzen zela, ihes egiteko parekorik ez omen zuelako. Fordek, eskutitza bere museoan jarri zuen ikusgai, ezusteko kanpaina are gehiago bulztatuz.



Ezkerrean, Bonnie (1910-1934) eta Clyde (1909-1934), Ford V8 autoa atzean dutela. Eskuinean, Henry Fordi Clyde Barrowek (ustez) bidalitako gutuna, autoaren bertuteak goraipatuz.



AEBKO KONGRESUKO LIBURUTEGIA

Harrigarriki, handik aste gutxira Fordek antzeko gutun bat jaso zuen, oraingoan John Dillinger banku lapur ezagunaren eskutik. Hark ere Forden autoentzat konplimentuak besterik ez zituen eta publizitate lelo bat ere proposatzen zuen: "Gida ezazu Ford bat eta beste autoak atzean geratzen direla ikusiko duzu". Dillinger handik gutxira hil zuten, 1934ko uztailaren 22an.

Bi gutunen ustezko egileak hilda, ezingo zuten testuak benetakoak ziren egiaztatu edo gezurtatu. Baina, gerora, adituek eskutitzak aztertu zituzten eta Dillingerrena faltsutzat jo zuten zalan-

tzarik gabe. Clyderen gutuna ortografia eta gramatika akatsez jositako zegoen eta hori bat zetorren Burrowek jasotako heziketa maila eskasarekin. Baina sinadura ez zetorren bat Clydek erabili ohi zuenarekin eta gutun hura ere zalantzan jarri zuten adituek.

Hipotesi batek dio, lehen gutuna benetakoa zela eta Fordek bigarrena asmatu zuela lehenaren eragina indartzeko. Beste hipotesi baten arabera, biak faltsifikatu zituzten, publizitate kanpaina ezkutua abiarazteko. Henry Fordek maitasun gutunak bere buruari bidali zizkiola, alegia. ■



MICHAEL WOLGEMUT

Arratoiek ez zuten Izurri Beltza zabaldu

Izurri Beltzak Europako biztanleen herena hil zuen 1347 eta 1351 urteen artean, eta, orain arte, arratoiei egotzi izan zaie gaixotasuna hain azkar eta hainbeste indarrez zabaldu izana. Baina Oslo (Norvegia) eta Ferrara (Italia) unibertsitateetako ikerlari talde batek arratoiak errugabetzat jo berri ditu, *Proceedings of the National Academy of Science*

aldizkarian argitaratutako artikuluan. Horretarako, Europako bederatzi hiritan izurri agerraldien simulazioak egin dituzte hiru eragile erabiliz: arratoiak, aire bidezko transmisioa eta gizakien zorri eta arkakusoak. Eta ondorio garbia ateratu dute: soilik gizakien parasitoen bidez zabal zitekeen izurria hain bizkor eta hainbeste pertsona kutsatu. ■

Ezker-aihena



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Gure etxean ezker-aihena izenarekin ezagutu genuen (*Humulus lupulus*). Izan ere, makina bat ezker-aihen landu da gure herriko erriorearen erriberatan, garagardogintza hedatu zenarekin batera. Otsaihena, zerbeza-lorea, zerbeza-lan-darea, bier-belarra eta ezker-belarra ere deitzen zaiola ikasi dugu. Orain jende gehienak lupulua deitzen dio. Ez dakit lehendabizikoz nork deituko zuen lupulu; idatziz, behintzat, hiztegi eta izendegi modernoetan jasoia ikusi dut, zaharrenak 1984ko UZEIren Biologia 1 izendegia eta 1985eko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Landare Katalogoa.

Ezker-aihena igokaria da; ez du kiribilik edo aparteko aihenik igotzen denean eusteko; landarea bera da aihena. Ezkerrez aurrera luze hazten den landarea da, 8-10 metrora arte ere bai zenbaitzuk. Urtero ihartu eta sustraiaetik urtero berritzen denez, urte askotarako jartzen zen soroetan. Izugarritzko hesola handietan lotutako alanbreetan luzatzen zen. Landare dioikoa da, hau da, landare batzuk arrak eta beste batzuk emeak dira. Emearen lorea osagai ga-



rrantzitsua da garagardogintzan. Lore horrek hauts-itxurako erretxin usaintsu bat izaten du, lupulina. Lupulinak garagardoari bizitza luzea ematen dio; garagardoa hartitzen den bitartean, desegin eta bi gaitan bereizten da. Bi osagaiok edariaren iraunarazleak dira. Era berean, garagardoaren mikaztasun nabarmen hori eransten diote. Ohiko gurpilera iritsi gara: zein da helburua? Garagardo mikatza ala iraungo duen garagardoa? Nire ustez, garai batean iraungo zuena nahiko zuten, nahiz mikatza izan. Sagardogintzan ere ezaguna da sagar aldaera mikatzen iraungarri lana. ARGIA n bertan kontatu digu, duela ez asko, Iñaki Sanz-Azkuek Hernaniko Orkolaga baserrian Antonino Pagolak

egiten zuen ezker-aihendun sagardoa-ren istorioa...

Sagarrarekin edota mahatsarekin ardoak egiteko, fruituen muztioa inguruan dituen lemagi eta abarrekin naturalki hartitzen uzten da. Uzten zen, gaur egun gero eta ohikoagoa baita legami jakin batzuk eranstea, muztioaren hartzidura "kontrolpean" izateko. Garagardoekin ere hori egiten da: garagar-ura edo "muztioa" desinfektatzeko egosi, eta ondoren legami jakin bat soilik erantsi. Horixe da beti dasta bereko garagardo bera izateko bidea. Baina gure aurretik eta aurretik ere garagardoa horrela egingo ote zuten? Desinfekzioarekin arazo latzak izango zituztenez, alegia. Ezezkioan nago. ■



943 64 17 10

www.endanea.com

Jaitzubia 40, Hondarribia

Garaia garaia da.

Sasoiko lore, landare eta barazkiak ipintzeko unea da. Gozatu garaiak ematen dizkizun aukerez.





ERRIGORA

Nafarroa hegoaldeetik Euskal Herriko 6.500 sukaldetara



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Udaberriko kanpainen murgilduta egon dira Errigorako boluntarioak azken hilabeteetan. Nafarroa hegoaldeko oliba olio eta barazki kontserbak eskaintzea egokitzen zitzaien oraingoan. Kanpainaren emaitzak eskuetan, balorazio oso positiboa egin dute bultzatzaileek: beste behin gora egin du Nafarroa hegoaldeko produktuen eskatzaile kopuruak.

Urte urte sendotzen doan proiektua

Jauzi handia egin zuen Errigorak iazko udaberriko kanpainen: konbentzionalen ekoiztako produktuez gain, modu ekologikoan ekoiztakoak eskaintzeari ekin zioten, emaitza oso onak lortuz. Aurten, iazko gorakadari eustea eta Errigorako komunitatea egonkortzea zuten helburu, baina egonkortzeaz gain, ekimenak jende gehiago biltzea ere lortu dute azkenean. Guztira 93.000 litro olio eta 207.000 ontzi kontserba banatuko dituzte aurtengo Eskutik Eskura kanpainen. Eskaeren %35 produktu ekologikoak dira, eta beste %65 konbentzionalak.

“Nork pentsa zezakeen orain bost urte, kanpaina hau egitasmo ere ez zenean, honaino iritsiko ginenik? Nork pentsa zezakeen ehunka milaka ontzitan euskarak bere tokia hartuko zue-

nik?”, galdetzen dute ekimenaren bultzatzaileek emaitzekin zabaldutako oharrean. Herritarren kontsumo ohituratan eragiteko asmoz sortu zen ekimena, eta esan daiteke asmoa betetzen ari dela pixkanaka: 6.500 etxetan Nafarroa hegoaldeko olio eta kontserbez beteko dituzte armairuak aurten.

Auzolanaren sarea ehuntzen

Euskal Herriko 72 herritara iristen da Errigorako sarea jada. Boluntarioz osatutako tokian tokiko taldeak izan ohi dira herri bakoitzean kanpaina aurrera eramateaz eta banaketaz arduratzen direnak. “Hau ez da zoriaren emaitza, herrilana baina. Kanpaina honetan buru-belarri ibiltzen garen ehunka auzolangileei esker da posible hau guztia”, azpimarratu dute oharrean.

Olio eta kontserbak ekoizti eta prestatzen dituzten nekazariei, boluntarioei, Errigorako mezua zabaltzen lagundu duten komunikabideei eta kanpainarekin bat egin duten kontsumitzaileei zorianak eta eskerrak emateko baliatu dute oharra. Errigorako komunitatea indartuz Nafarroa hegoaldeko nekazariei bultzada ematen jarraitzea posible egin dutelako. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Apirilak 12: Tuter

Landareen bizimoduaz
Jakoba Errekondoren hitzaldia eta
kontsultategia. 18:00etan.

Apirilak 14: Donostia

Hegaziak kantuz bereizteko ikastaroa.
9:00etan, Casares Kultur Etxean.

Apirilak 14: Hendaia

Geologia denontzat, Harrixketatik
haizetara, arroak ezagutzen ikasteko
tailerra. 9:30ean. Izena emateko:
cpieiltoralbasque.sig@hendaye.com

Apirilak 14: Aranguren

Ogi ekologikoa egiten ikasteko tailerra.
10:30ean, Labianoko Elkartean. Doanik.
Izena emateko: 948 012 012.

Apirilak 14: Legazpi

Artzaitxo Eguna. Erraizabal baserrian
bisita gidatua. Txanda hartzeko:
mirandaola@lenbur.com
943 73 04 28
943 73 18 95

Apirilak 15: Hondarribia

Landareen bizimoduaz
Jakoba Errekondoren hitzaldia eta
kontsultategia.
11:00etan Endanea Gardenen.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera
idatzi edo www.bizibaratzea.eus
webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

azoka

Azoka ARGIAren erraminta da, Euskal Herriko edozein txokotako salgaiak erraz ezagutu, erosi edo saldu ahal izan ditzagun. Oso aproposa eduki interesgarriak sortzen dituzten eragile eta herritarrentzat eta beren ohiko esparrutik Euskal Herri osora ezagutzera eman nahi dutenentzat. Eta alderantziz: zenbat gauza preziatu eskuratu ditugu halako herriko azokan, beste hango txosnan edo hurrengo erakusmahaian? Orri honetan astero salgai batzuk bistaratuko ditugu. Denak ezagutzeko edo zure ekoizpenak salgai jartzeko:

www.argia.eus/azoka

JOSE LUIS ZUMETAREN SERIGRAFIA

Jose Luis Zumetak ARGIArentzat egindako lan-grafiko originala.

Testura bereziko paper naturalean eginda daude, banan-banan, eta prozesu zainduko eskulanak dira. Artelana karpeta gogorrean dago bildua, koadroan jarri gabe ere primeran kontserba dadin. Eta Jose Luis Zumetak eskuz sinatuak dira.

Ezaugarriak:

- 50 zentimetro ditu altueran eta 40 zentimetro zabaleran.
- Serigrafia mugatua: 200 ale.

99 €



Beste lamina eta mapa batzuk



Arno Peters-en munduko mapa

Herrialde bakoitzaren neurria hobe islatzen diguna. Neurriak: 124 cm X 85 cm.

15 €



Europako herrien mapa

Estaturik gabeko herriak ere bai, bakoitza jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz izendatuta.

15 €



Xixili lamina

Txakur Gorria sormen taldearen lana. Neurria: A3.

15 €

ARGIA.EUS

Herri mugimendua beti bildu izan da plazan



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Kalea beti izan da herri mugimendua. Kanean edo kaleak erakusten du indar eta ahulgune. ARGIA Plaza eskaini zaio Euskal Herriko eragile sozial orori, www.argia.eus/plaza helbidean. Dagoeneko badira berrogei bat talde bilduta bertan, eta bilduta soilik ez, euren elikatu eta berritzen dute beren txokoa modu independentean. Baldintza: euskara.

Iragan abenduan jarri da martxan Plaza, ARGIAren webgune berrituarekin batera. Nondik nora dator, ordea, eragile sozialei zuzendutako espazio berezitu hau?

Oso presente ditu Euskal Herriko herri mugimendua eta gizarte zein kultur eragileak ARGIAko lantaldeak, batez ere azken urte hauetan. Ohartu dira, baina, hedabideek sarri ez dutela mugimendu hauen inguruko nahikoa informazio, edo informazioa izanik ere ez direla denen beharrak asetzera ailegatzten. Hortaz, zergatik ez eman beraiei tresna erraz bat, beren buruen berri euren idatz eta ARGIAren webgunean publikatzeko? Plazak badu bere leihoa webguneko orri nagusian, eta beraz, publikatutakoa bertatik pasatzen da.

Informazioa sareko multinazionalen esku

Eragile batek Plazan informazioa eta albisteak jartzeko modu bat baino gehiago du. Badira beren webgune propioa duten taldeak, eta horiek RSS bidez automatikoki sortu dezakete beren biltegia gurean; esan bezala, beti ere euskaraz bada.

Baina badira beste talde eta eragile txiki asko beren orrialde edo blogik ez dutenak, eta euren informazioa sare sozialen bidez zabaltzen dutenak. Kasu honetan albistea editatzeko aukera dute eragile hauek guztiek, beren informazioa sareko multinazionalen eskuetan bakarrik utzi gabe, behintzat. Zeren, kontziente al gara noizbait sare sozial horiek itxi edo desagertzen badira gure ibilbide guztia ere beraiekin eramango dutela?

Hori ekiditeko ere bada Plaza hau, baliabide gutxi dutenei ere modu erraz batean bere espazioa eskaintzeko.

Hilabete gutxitako kontua da oraindik, baina ARGIAko lantaldea oso gustura dago emandako pausuekin. "Potentziala duen bidea" dela aipatu dute, dagoeneko fruituak ematen ari dena, eta gonbidapena luzatzen die herri mugimendu orori batzeko plaza zabal honetara.

Euskal Herriko herri mugimenduaren informazio iturri etengabekoa martxan da! ■

Eragileek albisteak argitaratu ahala, argia.eus-en azalean agertzen dira. Eragileen albiste denak ikusteko aski dugu www.argia.eus/plaza helbidean sartzea.

PLAZAN DAUDEN ERAGILEAK. GEHITU!

Administrazioan Euskaraz Taldea
ARGIA
Askekintza
Ataramiñe
Bagera Elkartea
Bizi! Mugimendua
Booktegi
CNT Sindikatua
Dantzan
Egia Bizirik Auzo Elkartea
Egiari Zor Fundazioa
EHNE Bizkaia
Ekologistak Martxan
ELA Euskal Sindikatua
Errigora
Etzi Portu Maritimoa
Euskal Herriko Laborantza Ganbara
Euskara ari du
Gaindegia
Galerna aldizkari donostiarra
Garabide Elkartea
Gipuzkoa Zutik
Gure Esku Dago
Herri Unibertsitatea
Hizkuntz Eskubideen Behatokia
Ikasle Abertzaleak
Independentistak Sarea
IPES
Itsas Enara Ornitologia Elkartea
Izadi Fundazioa
Joxemi Zumalabe Fundazioa
Kalea Guztiona Da
Komite Internazionalistak
LAB Sindikatua
Landan Ingurumen Elkartea
Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia
Manu Robles-Arangiz Fundazioa
Naturkon-Naturaren Kontserbazioa
Gipuzkoan
Olatukoop
Soziolinguistika Klusterra
UEU
Zabalik Elkartea

Itziar Okariz

“Ulermena etengabeko diskriminazio prozesua da”

Bere lana batik bat performanceetan eta ekintzetan oinarritzen bada ere, eskulturarekin identifikatzen den artista da Itziar Okariz donostiarra. Donostiako Tabakaleran *I Never Said Umbrella* erakusketa du ikusgai, ekainaren 3ra bitarte.



Nere Lujanbio

@Nere_LuZu

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Tabakalerako erakusketaren izenburua David Bowieren kanta batekin izandako gaizki ulertu batetik omen dator. “*I never said umbrella*” abesten zenuen, berez, kantuak beste zerbait esaten zuela ohartu zinen arte. Zein da gaizki-ulertuaren eta erakusketaren arteko lotura?

Loturak hizkuntzaren izaerarekin du zerikusia. Hizkuntza prozesu oso konplexua da, ez da zuzena, ez da argia. Hau da, adierazle batek ez dauka esanahi zehatz bat eta bakarra, askoz ere malguagoa da. Gertatzen den prozesua zeharkakoa da. Igorleak asmo bat izan dezake, baina ezin du aurreikusi gertatuko dena –hartzaileak ulertuko duena–, gertatzen dena sarritan unean unekoa izaten baita.

Zure lan askoren oinarrian dago hizkuntza, eta maiz aipatzen duzu hizkuntzaren materialtasuna.

Gogoko dut materialtasunaren ideia. Eta oso garrantzitsua dela deritzot, gainera. Askotan ahaztu egiten dugu gauzen materialtasuna. Eta materialtasun

hori adierazlea da, benetan. Zertaz ari naiz materialtasuna esaten dudanean? Adibidez, ni orain esaten ari naizen hitz hauek, nire ahots tonuarekin lotuta daude, eta nire ahots tonuak, esaten ari naizen honekin zuzenean loturarik ez duen informazio ugari eskaintzen du. Zeharkakoa da lotura hori. Nolabait irudi batean “eremu kanpo” geratzen dena izango litzateke. Ikusten ez den arren, irudiak esaten duen hori guztia, alegia. Beraz, nire ahotsaren tonua, katarroa dudana ala ez, emakumea naizen ala ez... hori guztia nire tonuaren baitan dago, modu inplizitu. Eta hori hizkuntzaren materialtasunaren zati bat da.

Beste zati bat izan daiteke, aurrean dudana esku hau, mugitzen ari naizena, orain bost behatzak zabalik dituen, lurrarekiko paraleloan dagoena, ia lerro horizontal bat marraztuz. Baina ia. Forma hori ere adierazlea da. Eta zuk, aurrean zauden horrek, hori guztia ulertzen duzu gertatzen denaren izaeraren baitan, eta gertatzen denaren materialtasunaren baitan. Elementu horiekin

guztiekin lan egitea interesatzen zait komunikazio eta ulermen prozesuan gertatzen denaren konplexutasuna azalertzeko.

Ulermen prozesu horretan diskriminazioak duen papera ere asko azpimarrazten duzu.

Oso-oso garrantzitsua da, bai. Eta oso argia da, adibidez, soinuaren kasuan. Orain hizketan ari garen leku honetan, esaterako, ez dago nire ahotsaz gain soinu askorik, baina gure arteko ulermena posible izan dadin inguruko hots guztiak diskriminatzen ari gara: kafe-tegian dagoen jendearen hotsak, argazki kameraren kliskatzea... hori guztia entzutea saihesten dugu, diskriminatu egiten dugu, gertatzen ari denaren zati bat ulertu ahal izateko, gertatzen ari denetik interesatzen zaigunarekin gertatzeko. Ulermena etengabeko diskriminazio prozesu bat da. Berdin gertatzen da begiradarekin ere. Elkar ulertzeko prozesuan zentzu guztiekin gertatzen da berdintsu.



Tabakaleran ikusgai dagoen erakusketara itzuliz, azken bi hamarkadetako lanak jasotzen ditu, 1995etik hasi eta lehen aldiz aurkeztu diren lan berrietaraino. Zure ibilbidearen ikuspegi osoa eskaintzen duela esan genezake?

Tira, erakusketa ere diskriminazio baten emaitza da. Ez du guztia hartzen, ezinezkoa litzateke, urte asko baitaramazkit lanean. Hautaketa subjektibo bat da Beatriz Herráez-en –erakusketaren komisarioa– eta nire artean egina. Azken bi lanen inguruan eraiki dugu *Ujjay* eta *Las estatuas*–, bi horiek osatzen dute zutabe nagusia. Hautatutako gainontzeko lanak bi horiekin nolabaiteko lotura bat dutelako hautatu ditugu. Esaldiak zentzu zehatz bat izan zezan. Beste pieza batzuk aukeratu genitzakeen eta, orduan, beste zentzu bat izango zukeen.

Erakusketan bideo- eta soinu-instalazioak daude, baita hainbat performance eta ekintzaren transkripzioak ere, paperera eramanak. Lan guztiek edo gehienek ekintza bat dute abiapuntuan baina gero hainbat formatutara eramaten dituzu. Nola geratzen da “eraldatze” prozesu hori?

Gertaera beti dago abiapuntuan. Gertaera adierazle bat dago lehenik, edo nik adierazletzat jotzen dudana, eta forma zehatz bat duena. Ondoren, hainbat forma hartu ditzake gertaera horrek bere buruaren berri emateko, hau da, hizkuntza bilakatzen. Transkripzio batek hitzezko ekintza baten berri ematen du. Niretzat garrantzitsua da paperera igarotzen den horrek benetan gertatu den zerbaitekin, ekintza jakin batekin, lotura izatea. Ez dakit ziur zergatik, baina garrantzitsua da.

Arauen urratzea, arau sozialak edo portaera arauak urratzea oso presente dago zure lanetan. Oso nabarmena da urraketa hori *Espazio publiko eta pribatuaren pixa egitea* sail ezagunean edo *Eraikinak* igoz lanean esaterako; baina baita aurkeztu berri duzun *Las estatuas* proiektuan ere. Azken horretan, hainbat museotan azaltzen zara eskulturekin hizketan.

Hemen, berriz ere, hizkuntzaren izaera da gakoa, abiapuntua. Arau bat daukazu, gauzak gertatu eta existitu daitezen funtsezkoa dena, eta gauzek zentzua izan dezaten ahalbidetzen duena. Hortik abiatuta, edozein gauza, edozein zeinu hartu eta apur bat mugitzen baduzu,



» “Igorleak asmo bat izan dezake, baina ezin du aurreikusi gertatuko dena”

» “Feminismoak elikatu nau eta mundua leku zehatz batetik ulertu dezadan ahalbidetu du. Modu sakonean dago txertatua nire lanean”

arau hori desegituratzen ari zara, eta desegituraketa horretan, arau urraketa bat gertatzen da. Urraketa horrek askotariko formak izan ditzake.

Pixa egitearena tabua da, adibidez, eta zentzu horretan, urraketa nabaria da. Baina urraketa hori esaldi batean hitz bat moztea baino larriagoa da, edo arinagoa? Azken finean, gauza bera da: arau bat hartu eta desorekatzen saiatzea, hain justu, araua bera begi-bistara ekartzeko, eta bere izaera ulertu ahal izateko. Arau horiek sarri sozialak, historikoak dira, kulturalki kokatuta daude... eta horrek zentzu bat dauka; askotan, zentzu politiko bat.

Eta arau-urratze horietan zein pisu du emakume izateak?

Ni, izaki bezala, ideologia batean hezi izan naiz, feminismoan, hain zuzen. Feminismoak elikatu nau eta mundua leku zehatz batetik ulertu dezadan ahalbidetu du. Hori guztia modu sakonean dago txertatua nire lanean, lan guztian, lan guztietan, modu inplizituan hor dago, izan “eremuz kanpo” edo “eremu barruan”.

Zein proiektu dituzu une honetan esku artean?

Erakusketa honetan bi proiektu berri daude, forma hartu berri dutenak: *Ujjay* eta *Las estatuas*. Horiekin nabil lanean orain, beste forma batzuk bilatzen.

Ujjay-rekin urte mordo daramat lanean, etengabe porrot egiten. Nire ustez, oraingo hau izan da lehen aldia itxura egokia hartu duena. *Ujjay* yogako arnasketa bat da, “arnasketa ozeanikoa” esaten zaio. Arnasketa figuratibo bat da, entzuten duzunean ematen baitu itsasoa entzuten ari zarela. Figurazio bat dago hor, berez, ez datorrena bat arnasketaren materialtasunarekin. Aldi berean, “bat, bi, hiru, txoriak kaka egin du” jolasarekin ere badu lotura. Nolabait, kamera batek nola lan egiten duen ere erakusten du: kamerak irudia eta soinua grabatzen ditu, zuk kamera martxan jarri eta bisorea tapatzen baduzu, soinua grabatzen jarraitzen du, eta orduan, jolas moduko bat bilakatzen da. Dena den, orain arteko



saiakerak erabateko porrota izan dira, porrota bata bestearen atzetik.

Las estatuas hastapenean dago. Bada-
kit baduela zer edo zer sakon-sakonean

interesatzen zaidana. Bitxia da, hastape-
nek izan ohi dute zerbait freskoa, bizia,
zuzena, ongi dagoena. Agian ez daude
erabat garatuta, ondoren konplexutasu-

nean irabazten dute, baina hastapeneta-
ko ezaugarri hori galdu egiten da.

**Azken urteotan sorkuntza lanaz gain lan
pedagogikoa ere aritu zara. Zer garran-
tzi du esparru horrek?**

Oso garrantzitsua da. Nik asko lan egin
izan dut pedagogiatik eta espazio peda-
gogikotan trebatu naiz neurri batean:
unibertsitatean, Artelekun, Whitney
Programme ere egin nuen New Yorken...
Orain, ordea, pedagogiak guztia harra-
patzen du. Etengabeko trebakuntza ba-
tean gaude, etengabe informatzen, se-
kula heldu izatera iritsi ezingo bagenu
bezala. Gai konplexua da hau, politikoki
konplexua. Lotura du, ezagutza imma-
terialarekin, eremu honetan mugitzen
garen pertsonen prekarietatearekin.
Eta, aldi berean, guretzat, eremu hone-
tan mugitzen garenontzat, pisu afek-
tibo handia ere badu. Eta erakundeak
horretaz baliatzen dira; eta guk ere, era
berean, onura ateratzen dugu hortik.
Konplexua da, oso erraza baita pedago-
giari gainbalio bat ezartzea, baina baita
kentzea ere. Arduratu egiten nau peda-
gogiaren gainbalioak. ■



Kalean da apirileko

aizu!

- Joxe Landa arin-arin
- Nafarroa Behereko lehen haurtzaindegi euskalduna
- Trenico gogoan
- Ardoaren eta arrainaren bidean
- Bilbo eta Getxo artean, bizikletaz

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizu.eus

Wild Wild Country telesail-dokumentala

Fikzioa balitz, ez nuke sinetsiko!

Netflix plataforma digitalak telesail berri bat estreinatzen duen bakoitzean (*Stranger Things*, *Narcos*, *Black Mirror*...) sekulako ikusmina sortzeko gaitasuna lortu du. Katalogoan ekoizpen propioko film bat sartzen dutenean ere (*Annihilation*, *Okja*...), mundu osoa adi egoten da. Baina dokumentalak txertatzen dituztenean, ostrasismoan erortzeko arrisku handia duten lanak bihurtzen dira, promozio kanpainetatik kanpo uzten dituztelako gehienetan eta edukien zerrenda potoloak betetzeko baino ez direlako izaten. Horregatik, nire esku dagoen guztia egingo dut, orain aste batzuk estreinatu zuten *Wild Wild Country* telesail-dokumental sinestezina ezagutzera emateko.



Gaizka Izagirre

@Gaizka_Izagirre

Telesailaren lehen minutuek 1980ko hamarkadara garamatzate, Oregonen (AEB) dagoen Antelope herrixka aurkezteko. 40 biztanle inguru dituen zonaldea da eta pertsona ugarik, bizitza osoa lanean aritu ondoren, zahartzaroko azken urteak lasai igartzeko aukeratzen duen helmuga. Baina zurrumurru arraro bat zabaltzen den unean, lasaitasun hori eten egingo da –eta nola gainera!–. Rolls-Royce baten gainean, oso garrantzitsua –eta diruduna– den tipo Indiar bat azalduko dela diote, alboko 30.000 hektarea erosi eta bertan ehunka eraikin eta etxebizitza eraikitzen hasiko dena. Hori entzun eta segundo gutxira, herrixka goitik behera gorritz jantzita doazen ehunka pertsonaz betetzen hasiko da eta, atzetik, aipaturiko Rolls-Royce zuria. Antelopen gertatzear den etorrera horrek zurrumbiloa eragingo du, sinestea kostatuko zaizun ehunka gertaeraz betea.

Chapman eta Maclain Way-k zuzenduriko eta sei atalez osaturiko lan lilugarri honek AEBetako historiaren pasarte bitxi bat azaltzen du, mundu osoa ustekabean harrapatu zuen gertaera harrigarria: Bhagwan Shree Rajneesh lider espiritualak eta bere sektaren jarraitzaileek Oregongo lurretan beraien hiria eraiki zutenekoa, baita gerora eragingo zituen ondorio ikaragarri, basati eta ilunak ere. Hainbat hilketa leporatu zizkieten, espioitza kasuak, baita hauteskundeak irabazteko intentziozko bioterrorismo atentatu bat ere, besteak beste.

Benetako kasu batean oinarritzeak abantaila asko izaten ditu, baina baita kontakizunaren gurpiletan balaztak jar ditzakeen hainbat arazo ere. Artxibo irudiak ez edukitzeak, adibidez, gertaeren birsortze kaxkarrak errodatzea eragiten du askotan, osotasunari sinesgarritasun apur bat kenduz. Kasu honetan, ahulezia gehienak sendotzen jakin izan

dute, suspense ariketa paregabea sortuz. Beharrezkoak diren birsortze horietako batzuk azaltzeko, adibidez, animaziozko sekuentzia argigarriak erabili dituzte, garai hartako protagonista izan ziren pertsonaien elkarrizketak tartekatuz. Gainerakoa, artxibo irudi ikaragarriek mamitzen dute. Dokumentalaren hasierako minutuetan iragartzen den krimenari heldu aurretik, esaterako, 1960ko hamarkadaraino birbobinatu eta lilura horren zergatia azaltzen saiatu dira: erreferente sozial eta politiko ezagun guztiak zalantzan jartzen ziren garai horretan, Bhagwan hizlari eta filantropoa bere herriko “rock-izar” moduko norbait nola bilakatu zen erakutsiko digu eta nola lortu zuen atzerriko milaka pertsonaren bihotza –eta burua– konkistatzea. Bat-batean, oso ongi ulertzen ez zuten mezu horrekin bat egin zuten milaka pertsona azaldu ziren, kontrakulturaren edozein mugimenduren parte izateko irrikaz zeude-



*Bhagwan Shree Rajneesh
lider espiritualak
Oregongo (AEB) herri batean
antolatu zuen sektaren historia
kontatzen du 'Wild Wild Country'
telesail-dokumentalak.*

lako batik bat. Une horretatik aurrera azalduko da hain garrantzitsua izango den Sheela, zeina Osho-ren –Bhagwan Shree Rajneesh-en ezizena– idazkaria zen eta aurrerago azalduko den diasporaren erantzule nagusia.

Wild Wild Country telesail-dokumentalak meritu ugari duela uste dut. Sekulako balioa duen material originala ikusteko aukera eskaintzen duelako, baina batez ere, istorio gorabeheratsu honetako inplikatu gehienek une bakoitzean izandako erantzukizuna azaltzen saiatzen delako. Sortzaileek erabateko inpartzialtasuna erakutsi nahi izan dute; eta hori, era honetako istorio batean, eskertzekoa da: ikuslearen esku dago zein aldetan kokatu, nahiz eta gehienetan irudiek adierazten dutenarekin zalantzarik ez izan.

Pentsatuko duzue gatazka, pertsonaia xelebreak eta istorio sendo bat izatea abantaila ugari edukitzea dela ekoizpenaren alde arraun egiteko. Bai eta ez.

» AEBetako historiaren pasarte bitxi bat azaltzen du ekoizpen honek: lider espiritual baten jarraitzaileek Oregongo lurretan beraien hiria eraiki zutenekoa

» Gatazka, pertsonaia xelebreak eta istorio sendoa edukitzeaz gain, egileek asmatu dute kontakizunarekin, materiala primeran antolatuz

Onerako eta txarrerako, material hori guztia non, nola eta zergatik moztu eta banatu ezinbesteko alderdi bilakatzen delako; baina horretan ere ez dira herren geratu, informazio guzti hori era burutsuan antolatzen jakin izan duten gidoilari eta muntatzaile paregabeak izan dituztelako. Ez hori bakarrik: iragana eta oraina erakusten duen Adam Stoneren argazki zuzendaritza trebeak eta une batzuetan azaltzen den Brocker Wayren musikalizazio ironikoak ere asko laguntzen diote ikusleari zentzuzko ikuspuntu bat ematen istorio konplexu, mingarri eta une batzuetan triste honi.

Dokumental formatuan kontatzea erabaki duten benetako historia izanik, paregabea iruditu zait, harrigarria, bikaina. Istorio berbera fikziozko film batean ikusi izan banu, asmaturiko gidoi bat tarteko, zentzurik gabeko istorio aldrebes eta sinesgaitza dela pentsatuko nukeen. Fikzioa balitz, ez nuke sine-tsiko! ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bi urterik behin



Igor Estankona

Beatriz Chivite bere ohiko argitasunagaz dator *Biennale* (Erein, 2017) honekin, Blas de Otero Bilboko Uria IX. poesia lehiaketa irabazi ondotik. Bere betiko argitasuna da ilargiarena, zeharka jasotako eta biderkaturik emandako irudien jokoa: "Iraganean ezagutu ziren./ Et orain,/ zeru berri honen/ kolore urdina/ elkarrekin begiratzen zuten/ ezezagun pare bat/ baino ez ziren".

Ohikoa dela diot *Pekineko kea* (Pamiela, 2017) akordarazi didalako, ibilitako bideetatik eroan naudelako Beatriz Chivitek atzera. Liburu hartako negua, liburu hartako zurtasuna: "Kanalaren gainean,/ elurra./ Kristalaren aurrean,/ argi txuria". Berririo liburu hartako irudi handi txikiak...

Pekineko kea bikainaren gainean esan nuen errepikatuko dut beraz, *Biennale* delako uzta bereko ardoa, idazkera jori eta joskera arin berberaz ondua. Freskoa, iradokitzailea, interesgarria. Agian arean motelagoa. Eta agian liburu honetan gehiago sakontzen du ekibokoan eta misterioan, zentzu desberdinak har ditzaketen kontzeptuetan: "Itsasertzean distira egiten duen harria/ nire poltsikoan/ iluntzen da". Harri batek bere umeltasuna galdu eta zelan itzaltzen den deskribatzerakoan aukeratu duen hiztegiak bihurtzen du eszena hain iradokitzaile.


Konposizioen finezia beraz agerikoa da, Chiviteren marka. Beraz ezagutzen diogun mutazioenganako gustua, klasikotasunak leundua, nabarmena da lan honetan ere. Eta lehenaldiko

Biennale

BEATRIZ CHIVITE

Erein, 2017

Beatriz Chivite Ezkieta idazlea
(Iruñea, 1991).



argazkiak polaroid argitsuen antzera dakartzatza: "Eguzkiaren azpian irakurtzen zenuen/ ni zume zuriaren azpian lotan/ hanka bat belarrean luzatuta/ bestea toalla arrosaren gainean". Ikuskari bateko kolore, ñabardura, proportzioez ohartzten den idazlea da hau.

Badauka *Biennale* hala ere, *Pekineko kearen* aldean, halako joera bat ertzak borobiltzeko. Ohartu naiz betelan gehiago dagoela lan honetan. Lehiaketetarako birziklatzen diren poema horiek, ebakitzailaegiak gerta ez daitezen kamusten diren ziriak, arinegi bezala amaitzen diren konposizio erdibidekoak...

halabeharrez, antza, halakoak sartu zaizkio isilka Chiviteri *Biennale*-n, frogatuz bezala bi urterik behin agian bai, baina urtean bi aldiz zaila dela liburu beti bikain, beti perfektuki birfinduak ateratzea. ■

» KONTZERTUA

Erromantizismo hutsa



Montserrat Auzmendi del Solar

Opera erromantiko bakar bat aukeratu behar badugu, zalantza dezente izan dezakegu, baina Verdiren *La Traviata* aipatzen badugu, ez dugu huts egingo. Alexandre Dumasen *Kamelien dama* obran oinarritutako lan distiratsu honek den-dena dauka hunkigarria suertatzeko eta sentimenduak azalera ateratzeko: benetako baina ezinezko maitasuna, zoritxarra, patua... XIX. mendeko nobelen osagai guztiak ditu publikoaren opera kuttuna izateko.

Alde musikaletik ikusita, Verdiren onena eskaintzen da obra honetan. Musika eta libretoa urtu egiten dira. Esan dezakegu opera honen musika nolabaiteko musika programatikoa dela, melodiak berak deskribatzen baititu lan honetan zehar agertzen diren sentimendu desberdinak.

Interpretazioari buruz, inpresio ona hartu nuen. Eta sorpresa izan zen niretzat. Azken urteotan munduan zehar dabilzan Errusiatik ateratako orkestra eta abeslarien taldeak, horrelako muntaia klasikoak eginez, kalitate eskasekoak dira orokorrean. Kasu honetan, Errusiako Rostov Estatuko Orkestrak, Abesbatzak eta Bakarlariak produkzio erabat klasikoa ekarri zuten, ondo zuzendua eta ondo abestua, dudarik gabe.

Esan bezala, eszenaratze hiperklasikoa ikusi genuen, zaindua. Bestalde, ondo mugitu ziren abeslariak taula-gainean, nahiz eta momentu batzuetan akats nabarmenak egin. Adibidez, Violettak, hilzorian zegoenean, publikoari bizkarraren emanez kantatu zuen eta, horren ondorioz, detailerik gabe entzun zen bere aria (pena).

Verdiren *La Traviata*

ERRUSIAKO ROSTOV
ESTATUKO ORKESTRA,
ABESBATZA ETA
BAKARLARIAK

Euskalduna Jauregia.
Martxoaren 24a.

*Errusiako Rostov Estatuko
Orkestrako bakarlariak.*

Elena Zolova sopranoak Violetta sentitua egin zuen. Hirugarren ekitaldiko *Addio del passato* aria, beste batzuen artean, zinez hunkigarria iritsi zitzaigun. Victor Mendelev tenoreak ere momentu distiratsuak izan zituen, *De miei bollenti spiriti* arian bezala. Baina txalo guztiak eraman zituen, dudarik gabe, Valerii Khraponov baritonoa izan zen. Giorgio Germonten papera egin zuen (Alfredoren aita) eta uneoro seguru-seguru abestu zuen, tinbre garbi eta orekatua erakutsiz. Rostoveko orkestra, Mikhail Pabuzinen batutapean, doitasunez ari zuen, nahiz eta batzuetan ahotsak zapaldu. ■





Ruperren magia, Ruper gabe



Dabi Piedra

ARGAZKIA: DAVID HERRANZ / LORALDIA

DABILEN HARRIARI SO. AZUKRE KOXKORRAK RUPER ORDORIKARENTZAT IKUSKIZUNA

Martxoaren 14an, Bilboko Kafe Antzokian. Loraldiaren baitako ekitaldia.

Loraldiak euskal kulturaren mitoak omentzeko duen joerari eutsi dio 2018ko edizioan eta martxoaren 14ko gauean Ruper Ordorikaren txanda izan zen. Asteazkena izanik, publiko urria espero izango zuen norbaitek, baina kontrakoa izan zen: Kafe Antzokia lepo beteta, jende andana Ruperren abesti ezagun zein ezezagunak entzuteko desiatzen. Ruperrek badu magia berezi bat, haren gitarraren nota soil batek txinparta pizten du, “baietz nik ondoak baino hobeto ezagutu kanta honen hitz guzti-guztiak”.

Baina, kasu, Ruperren gitarra ez zen Bilboko Kafe Antzokian izan. Ruper Ordorika ez baitzen azaldu Ruper Ordorikari eskainitako omenaldi-kontzertu-ikuskitan hartan. Bai, ordea, haren bidelagun izandakoak eta euskal musikaren panoramako ahots freskoak nahiz beteranoak. Bizpahiru pieza jo zituen bakoitzak, Ruperren abestien bertsoiak denak, eta jendea aho zabalik utzi zuten.

Musikariei lekua egin baino lehen, Fermin Etxegoien agertu zen oholtzan, “musikari domestikoen” ordezkari. Azken batean, nork ez du abestu noizbait Ruperren kantaren bat etxeko intimitatean?

Musikarako dohain zalantzaraguri gorabehera, Etxegoienek publikoa berotzen jakin zuen, etortzeko zegoenerako. Ixiar Orejak berragerpen labur bezain intentsoa egin zuen, Bide Ertzean-eko kideek lagunduta eta Mikel Urakenen ahots distortsionatuak beste dimentsio batera eraman zuen Ruperren erreperitorioa (*rupertorioa* alegia).

Ondoren, Pettik, Balerdi Balerdiko lagunekin, tabernariaren ikuspegitik aukeratutako hiru bertso aurkeztu zituen: Lehenengoa goizean entzuteko egokia; bigarrena, bazkalosterako; hirugarrena, gauerako. Rock sendo hori, ahots sakona... Petti zen, bai, oholtza gainean, baina Ruper ere bai. Nahasketa bitxi bezain emankorra, jendearen erreakzio zalapartatsua entzunda.

Miren Narbaizaren hiru bertsoiek MICE proiektu berrirako landu duen estiloaz goatzeko balio izan zuten. Ari-madun estiloa, arimadun kantak interpretatzeko. Amaitzeko, Ken Zazpi igo zen agertokira. Eta bai, azkenean *Zaindu maite duzun hori* entzun genuen, inork zalantzarik bazuen. Ruperren kantak halako epikotasun batekin jo zituzten, Ken Zazpik ohi duen eran.

Hala ere, gaueko animatzaile nagusia ez zen musikaria. Errespetuzko txaloz hartu zuen publikoak Bernardo Atxaga, eta gozamenezko burrunba batekin agurtu. Bere nobeletatik, oroitzapenetatik zein inguruko gertakarietatik itxurazko loturarik gabeko elementuak hartuta istorio zirikatzaile harrigarria osatu zuen, bizi-bizi, umorez. Noizean behin hitzaldia eten beharrean izan zen, publikoaren algarek eta oihuek kutsatuta. Ruperren kantak gogoan iltzatuta eraman genituen etxera, eta Atxagak piztutako irribarrea ahotik ezin ezabatuta. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

Gaia: Euskal Herriko portuak

 1 CC: Euskalduna	KARKABA LANDARE MOTA	2 GAUZA, KAPAZ	KLERA SEINALE, MARKA	GAIXO ERAGIN ESANGURA DUEN PARTIKULA	 2 CC: Harrieta171
	BANKU BATEN JABE JOATEN, JOANEZ				
1 GEU	JOERA ROENTGEN			ERGELA GRADUTAN NEURTZEN DIREN IRUDIAK	3 ETZAN
		PASTORA- LETAKE ANTZEZLE EZARTZEKO EKINTZA			
ERRESISTEN- TZIA EME SORT- ZAILAK	OINAZEA ADIERAZTEKO NEKA, UNA		OINUTSIK IKARAZ		
		JAGOLE KARTZELAKO GELAKO BAKOITZA		KOTOIZKO EHUNA EMEEN UGATZA	
JURGI ..., WIL- LIS DRUM- MONDEKO ABESLARIA JUSTU			BURDINAZKO LOKARRI LOZORRO		BI ERRO- MATAR ZENBAKIZ URANIAO
	UHARTE ERANTZUKI- ZUNA EGOTZI			ARGITASUNIK GABEA GARAI, DENBORA	
 3 CC: Mikel Arrazola	4 LARRUAK ONTZEKO GAIK				 4 CC: Euskalduna

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

	5			2	1		9	
		2			5	7	6	
				7				2
	6		2					7
8	1					2		6
2					4		1	
4				9				
	8	6	1			9		
	1		6	4			7	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Herabetasuna.
2. Ekintzak.
3. Oztopoa.
4. Gela baten estalki.
5. Araknido mota.

Ebazpenak

3	1	9	6	4	2	7	5
7	8	1	5	3	6	2	4
4	2	5	7	9	8	3	1
2	7	3	8	6	4	5	1
8	9	1	5	3	7	2	4
5	6	4	2	1	9	3	8
9	3	8	4	7	6	1	5
1	4	2	9	8	5	7	6
6	5	7	3	2	1	4	9

Akain.

3. Traba, 4. Sabai, 5.

1. Lotsa, 2. Obrak,

5x5:

Reda Zine. Dokumentalgilea



Marokon sortu zen Reda Zine (Casablanca, 1977) kazetaria. Jaioterriko L'Boulevard musika jaialdiaren sortzaileetakoa da. Bolonian (Italia) bizi da, eta 2015ean *The Long Road to the Hall of Fame* aurkeztu zuen, Tony Kingen bizitza ardatz hartuta. Futbolari, aktore, ekintzaile politiko eta Public Enemy taldearen segurtasun arduradun izandakoaren bizitzaren bidez, AEBetako afroamerikarren azken hamarkadotako berri ematen du. Otsailean gurean izan zen filma aurkezten.

“Historia lehoiaren ikuspuntutik kontatu nahi dut, ez ehiztariarenetik”



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: INIGO AZKONA

Islamaren nazio beltza

“Ghetto-a munduaren periferia da, eta Tony King-Malik Farrakhan ibili zen Nation of Islam-en metaforikoa da islama; mezan bezala aritzen dira kantuan, Korana eta Biblia aipatzen dute... hurbilketa sinkretikoa da. Ulergarria da: zuriek erlijioa ezarri zieten, baina ezin da zentsuratu barne ahotsa, kanta, al-darte hori. Begiratu beltzen elizak eta konturatuko zara. Arrazakeria arazo handia dago AEBetan, deshumanizazio historia luzea dute, baina ez daude prest erreparaziorako. Gil Scott-Heron-ek esan bezala: nork ordainduko du erreparazioa nire arimarentzat? Bada, hasteko, historia lehoiaren ikuspuntutik kontatu behar da, ez ehiztariarenetik”.

Casablancako eszena alternatiboan hasi zinen.

Antzoki okupatu batean hasi ginen, eragile talde txikia ginen, musikari, kazetari, teknikariak... Elkarrekin moduan hasi ginen antolatzen, areto txikiak alokatuta, eta ohartu ginen gu bezala beste jende asko ere gauzak egiteko gogotsu zegoela... L'Boulevard festibala bilakatu zen denborarekin.

Ez zen erraza izango 90eko Marokon?

Iritzi publikoa eta hedabideak ez zeuden musika tradizionala edo pop musikaz haragoko adierazpenetara irekita, muturrekotzat hartzen ziren bultzatu nahi genituen heavy metal eta hip-hop estiloak. Egin kontu, 1997 inguruan ez zegoen internet egun bezain garatuta, telebistan aukerarik ez eta VHS zintak elkarbanatzen genituen. Barne Ministerioa oso gogor ari zen orduan, ostrakismo handia zegoen, izua eta zentsura nonahi.

Errepresioa etorri zen orduan.

Arrakasta itzela lortzen hasi ginen, bai-

na Gobernutik, islamistengandik eta eskuinetik oro har, gero eta eraso handiagoak zetozen. Trantsizio garaia zen, Hassan II.aren heriotzaren ostean, baina Kultura Ministerioak ez zuen guk egindakoa kulturatzat hartzen. “Mendebaldearen degenerazioa zarete, inperialismoarena”, esaten ziguten. Gero atxilotetak etorri ziren: 2003ko otsailean, kontzertu baten ostean, hamalau lagun euren etxeetan atxilotu eta kartzelaratu zituzten. “Satanismoa” leporatu zieten. Prozesu kafkiarra izan zen, galdera inozoak egiten zizkieten, etxean kamiseta beltzak eta kandelak zituztela frogatzat aurkeztu...

Zein izan zen gizartearen erantzuna?

Irakeko inbasioaren garaia zen eta, Marokon, amerikar inbaditzaileekin lotzen gintuzten gu. Babes kanpaina antolatu genuen atxilotuekin, baina Marokoko hedabideak eta iritzi publikoa kontra genituen, eta barnealdean oso jende gutxi eman zigun laguntza. Aipagarriena izan zen berunezko urteak bizi izandako ezker muturreko sindikalista zahar



"Marokoko hedabideak eta iritzi publikoa kontra genituen, eta barnealdean oso jende gutxi eman zigun laguntza".

batzuek emandako babes. Horietan nabarmendu zen hil berri den Amale Samie kazetari eta anarkista. Apolitikoak ginen baina beraiek abokatuak bilatu eta lokalak utzi zizkiguten babesa antolatzeko.

Eta kanpoan?

Ni ordurako Marokotik at nintzen, zorionez, eta kanpotik lagundu ahal izan nuen, Internet bidez, lagunaren aldeko kanpaina egiten, baina Maroko eta Frantziako erregimenak elkar hartuta egon dira beti eta erabateko isiltasuna zegoen Frantziako hedabideetan, 40 egunez ez zuten aipamenik egin. Egun batean, *Le Monde* azalean atera zuen gaia, ondoren *Liberation* etorri zen eta... biharamunean lagunak askatu zituzten. Bestalde, handik aste gutxira, beste hamalau gaztek, ez rockeroak, Al Qaedak burmuina garbitutakoak baizik, eraso suizidak egin zituzten Casablancan. Horrek erabateko aldaketa eragin zuen Gobernuaren jarreraren, eta handik aurrera L'Boulevard festibalari laguntza ematen hasi ziren.

Parisen geratu eta zinegintzara jo zenuen orduan.

Sorbonan identitateen eraikuntzan telebistak duen eragina ikertu nuen. Ikasketak bukatu eta kazetari aritu nintzen, irrati bitan eta Amale Samiek sortutako aldizkari batean Frantziako berri emaile hasi nintzen, baina bi urtetako presioek eta zentsurak itxiarazi zuten aldizkaria. Marokora bueltatzeko asmoa nuen baina ikaskide Italiar batekin ezkondu eta Bolognara jo nuen. Bertan irrati batean etorkinekin hasi nintzen lanean, eta Bolognako Cinetecarekin lan egiten. Marokoko musika eszenaren inguruko dokumentala egin nuen eta, ondoren, Cinetecaren laguntzaz, Bologna, Bukarest, Sevilla eta Riga hirietan integratutako etorkinen istorioak jaso zituen *This is my story. Or Ours?* egin nuen. Horlortutako diru apurrak *The Long Road to the Hall of Fame*, nire kasa egiteko gastatu nituen gero.

Txiripaz egin zenuen topo Tony King-ekin?

Bai, Obamak AEBetako agintea hartu zuen garaian, Public Enemy taldeko

Chuck D abeslariari elkarrizketa egin nahi nion Obamaren garaipenaz, L'Boulevard-en aldizkarirako. Berarengandik pasatu behar izan nuen, Public Enemy taldearen segurtasun arduraduna zelako. Berak kontatu zidan NFLn jokalaria ibili zela, blacksploitation mugimenduari garaian aktore, Nation of Islam-en, Malik Farrakhan izena hartuta... Ez nion sinesgarritasun handirik eman, baina gero Googlen hasi nintzen bila eta... Ene! bera zen! Berari buruzko filma egiteko proposamena egin nion eta gustura onartu zuen.

Zure kabuz eta baimenik gabe egin duzu dokumentala.

Baimen berezia eskatu behar da AEBetan filmatzeko, baina nik ez nuen eskatu. Chuck Dk eta lagunak ikusi zuten egile xumea nintzela eta Tonyren gaineko filma egiteko ate guztiak ireki zizkidaten. Euren eskutik ghettoan sartu ahal izan nintzen, izan ere, Los Angelesen, Hollywood-ez beste, baduzu Watts auzoa. Tony bizi den ingurua da eta, zuria bazara, ezin zara handik zure kasa ibili. ■




Alemania ez dela nazioa deskubritu du kazetari espainiar batek, Puigdemont aske geratu ostean

Espainiako ikerketa-kazetari batek aurkikuntza harrigarria egin du, Carles Puigdemont aske uzteko erabakia eza-gutu ondoren: "Arraroa egin zitzaidan epailearen jokamoldea eta dokumentu historikoak errepatatzen hasi nintzen. Sekulako pastela aurkitu nuen: mende erdi baino gehiago da Alemaniak ez duela sistema nazional-sozialistan funtzionatzen". Aurkikuntzak berehalako oihartzuna izan du kazeta espainia-

rretan: "Bakarrik gaude", publikatu du, adibidez, El País egunkariak azalean. Aurkikuntzak eragin duen trauma sozialak zineman ere izango du eraginik: 'Goodbye Führer' filma laster iritsiko da Espainiako aretoetara. 20 urteko Ciudadanosen boto-emaile baten istorioa da, zeina saiatuko den komatik esnatu berri zaion amari sinestarazten, Alemaniak nazien esku egoten jarraitzen duela.

SAREAN ARRANTZATUA

Kaixo nerabezaro, zesatek?



Ready? Go, go!



Trebiñu, turismo masiboaren aurka

Araba eta Burgosen arteko itunak kezka eragin du trebiñarren artean, bertoko zerbitzuak are gehiago hobetuz gero, jada nahikoa handia den turista kopurua sobera hazi daitekeelako, euren eta herritarren arteko elkarbizitza arriskuan jartzearaino. Moskator, Agilu, Bustu, Franku, Fuidiu eta Lañuko -ez, ez dira Asturiasko herriak-bizilagun-

nek, besteren artean, turismoarekin kezkatutako "BiLagunEkin" plataforma sortu dute. Maiatzaren 25ean munduko turismoaren goi bilera egingo denez Donostian, trebiñarrek manifestazio-rra deitu dute Pedruzoko bulebarrean, "Tourist go home, Arabar refugees welcome" lemapean. "Gu ez gara turistafoboak, baina...", azaldu du Pruden



Rodrigo del Río de Losa plataformako kideak.

APIRILAK

21

22:00

PAGOA

kafe antzokia

OIARTZUN

SARRERAK

A: 5€

T: 8€

OIARTZUN

ELORSORO

PAGOA

DONOSTIA

DONOSTI ROCK

ERRETERIA

ARKAITZA TABERNA

ONLINE

TICKETEA

COLECTIVIA

MAUKA

KUTXABANK



baga
biga

berria

ARGIA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

SEGURA
IRATIA
SEGURA (Gipuzkoa)



PAGOA®

EUSKAL HERRI BERRIKO ARTISAU GARAGARDOA

WWW.PAGOA.EUS • PAGOALDEA 7, 20180 OIARTZUN • TEL. 619 421 153



ERAKUSKETA SAN TELMO MUSEOA 2018-3-24 // 2018-6-17

ARGAZKI-LIBURUEN FENOMENOA

+ GABRIELA CENDOYA BERGARECHE COLLECTION

Antolatzailea:



Hauekin ekoiztua:



Erakunde babesleak:



Patrono pribatuak:



San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1 20003 Donostia
T. 943 481 580 / www.santelmomuseoa.eus
@santelmomuseoa